
Sexu-abusuen eta -erasoen preskripzioa biktima adingabea denean

Gradu - Amaierako Lana
Gradu-Bikoitza: EAZ + Zuzenbidea
2020-2021 Ikasturtea



Egilea: Patricia Ahedo Calera
Zuzendaria: Maria del Rio Pereda

LABURPENA

Lan honen helburu nagusia sexu-erasoen eta -abusuen delituen preskripzioa aztertzea izango da, biktima adingabea denean. Zigor Preskripzioa historian zehar arautu den figura juridikoa izan da, gaur egun Kode Penalaren 131.artikuluaren eta 135.artikuluaren bitartean arautzen dena. Figura honen oinarriari dagokionez, oraindik eztabaida sortzen du, jatorri prozesalaren, materialaren edo mistoaren aldeko posizionamendu desberdinak daudelarik.

Bestetik, sexu-erasoak eta -abusuak jasaten dituzten adingabeen kopurua kezagarria da. Horren ondorioz, baita delitu hauek dituzten ezaugarri berezituengatik, Indarkeriaren aurrean Haurtzaroa eta Nerabezaroa osotasunean babesteko Lege Organikoaren Aurreproiektu onartu du Gobernuak. Adierazgarri da Lege Organiko honen bitartez, preskripzioa epea luzatzen dela. Hau da, gaur egun Zigor Kodearen 132.1 artikularen arabera sexu-delituak preskribatzen hasiko dira adingabeak 18 urte betetzen dituenean. Lege Organikoaren helburua epea 30 urtera luzatzea da, momentu horretan preskripzioa epea zenbatzen hasiko delarik.

Hitz gakoak: Preskripzioa, sexu-abusuak, sexu-erasoak eta adingabeak.

RESUMEN

El objetivo principal del presente trabajo será analizar la prescripción de los delitos de agresiones y abusos sexuales, cuando la víctima sea menor de edad. La Prescripción Penal ha sido una figura jurídica históricamente regulada, actualmente se encuentra recogida entre los artículos 131 y 135 del Código Penal. En cuanto al fundamento jurídico de esta figura, aún suscita controversia, existiendo diferentes posicionamientos a favor de su origen procesal, material o mixto.

Por otro lado, el número de menores que sufren agresiones y abusos sexuales es preocupante. Como consecuencia de ello, y por las características especiales que poseen dichos delitos, el Gobierno ha aprobado el Anteproyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia. Es significativo que mediante esta Ley Orgánica se amplié el plazo de prescripción. Es decir, actualmente según el artículo 132.1 del Código Penal, los delitos sexuales comenzarán a prescribir cuando el menor cumpla 18 años. La Ley Orgánica tiene por objeto la ampliación a 30 años, comenzando en ese momento el cómputo del plazo de prescripción.

Palabras clave: La Prescripción, abusos sexuales, agresiones sexuales y menores de edad.

AURKIBIDEA

LABURDURAK	3
I. SARRERA	4
II. PRESKRIPZIOA	5
2.1. Definizio juridikoa	6
2.2. Jatorria eta Bilakaera historikoa.....	5
2.3. Oinarri juridikoak	9
2.4. Preskripzio-epeak.....	12
2.5. Preskripzio-etena.....	16
2.6. Preskribaezintasuna.....	18
III. SEXU-ASKATASUNAREN ETA SEXU-UKIGABETASUNAREN KONTRAKO DELITUAK	21
3.1. Sarrera	21
3.2. Babestutako ondasun juridikoak.....	24
3.3. Sexu-erasoak.....	27
3.4. Sexu-abusuak.....	28
3.5. Sexu-abusuak eta -erasoak biktimak 16 urte baino gutxiago dituenen 30	
3.6. Delitu zehatzen preskripzioa biktima adingabea denean.....	35
IV. ADINGABEEN SEXU-ABUSUEN ETA -ERASOEN PRESKRIPZIOA	37
4.1. Sarrera	37
4.2. Indarkeriaren aurrean Haurtzaroa eta Nerabezaroa osotasunean babesteko Lege Organikoaren Aurreproiektua	39
4.3. Erreformaren aurreko erantzun soziala	47
V. ONDORIOAK	50
BIBLIOGRAFIA	52

LABURDURAK

AG	Auzitegi Gorena
Art.	Artikulua
BJKO	Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra
EB	Europar Batasuna
EGK	Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
EK	Espainiar Konstituzioa
GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundea
KA	Konstituzio Auzitegia
KALO	Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa
LO	Lege Organikoa
ZK	Zigor Kodea
ZO	Zuzenbide Oinarria

I. SARRERA

Ukaezina da sexu-erasoak baita sexu-abusuak sozietatean gaitzespen handia sortzen duten delituak direla. Hunkipen sozial hori handitzen da, biktima adingabea denean, haurtzaroa zorientasunarekin eta tolesgabetasunarekin lotzen baita. Delitu hauen aurrean adingabeek helduekin alderatuz duten arriskua handitzen da, ekintza sexuala ulertzeko gai ez baitira, ondorioz aurre egiteko zailtasunak dituzte. Beraz, delitu mota hauek bereizten dituen ezaugarria da adingabearen eta delitugilearen artean dagoen botere-harremana eta ondorioz sortu daitekeen sekretismoa. Horren ondorio nagusia da, adingabeek normalean ez dutela delituaren berri ematen bere inguruko kideei, salatzeke aukera izan gabe. Beraz, esan daiteke asimilazio moteleko delituak direla.

Egoera honen aurrean, azken urteetan zabaldu egin den eztabaida delitu hauen preskripzioa izan da, biktima adingabea denean. Izan ere, preskripzioa tradizio handiko figura bada ere, interesgarria da nola jarraitzen duen eztabaida berriak sortzen. Gaur egun, indarrean dagoen arauaren arabera, Zigor Kodearen 132.1. artikulua, preskripzioa epea zenbatzen hasiko da, adingabeak 18 urte betetzen dituen edo lehenago hiltzen bada heriotza datatik. Beraz, biktimek baita haurtzaroa babesten duten elkarteek presioa eragin dute gobernuaren gain preskripzioa epea luza dezaten. Behar sozial horren emaitza Indarkeriaren aurrean Haurtzaroa eta Nerabezaroa osotasunean babesteko Lege Organikoaren Aurreproiektua izan da. Arau hau onartuz gero, preskripzio epea biktimak 30 urte bete arte luzatuko da. Horrela, kontuan izanda delitu hauen preskripzioa 5-15 urte bitartekoa dela, biktimak gehienez 45 urte bete arte izango luke salaketa tarteratzeko aukera.

Lan honek adingabeek jasaten dituzten sexu-abusuen eta sexu-erasoen preskripzioaren inguruko azterketa proposatzen du. Horretarako, lehenik eta behin preskripzioa figura juridiko gisa aztertuko da, begirune berezia jarriz bere oinarri juridikoan eta epeetan. Izan ere, gaur egun oraindik ere, bereziki eztabaidagarria den gaia da. Behin preskripzioaren inguruko azterketa eginda sexu-eraso eta sexu-abusuen tipo penala azalduko da, biktima heldua baita adingabea denean. Bukatzeko, Indarkeriaren aurrean Haurtzaroa eta Nerabezaroa babesteko Lege Organikoaren aurreproiektuaren ikerkuntza burutuko dut.

Lanaren helburua, beraz, delitu hauetan preskripzioa duen garrantzia aztertzea izango da, delitu beraren izaeran eta biktimaren adinean arreta jarritz. Beraz, preskripzioa luzatzeko beharra aztertuko da biktimaren ikuspegitik, delituaren izaera eta preskripzioaren oinarria atzean utzi barik.

II. PRESKRIPZIOA

2.1. Definizio juridikoa

Preskripzioaren instituzioa, zigor eremuan, denboraren igarotzeak prozeduraren gain duen efektua bezala definitzen da. Hortaz, delituaren eta zigorraren preskripzioa egitateen gaineko erantzukizuna iraungitzeko kausa bezala araututa daude Zigor Kodearen 130.6 eta 130.7 artikuluetan, hurrenez hurren. Tradizio handiko figura juridikoa bada ere, gai konplexua da, oraindik ere zailtasunak agertzen direlarik¹.

Alde batetik, delituaren preskripzioa aplikagarria izango da, delitua burutu denetik kodean ezartzen den epea igarotzen denean hura epaitua izan barik. Hau da, kodeak espresuki ezartzen duen epea, delitu bakoitzaren izaeraren arabera, igarotzen denean delituzko portaera ezingo da epaitu, aurretik delitu horren inguruko epaiketarik burutu ez bada. Beraz, ustezko delitugilearen erantzukizun kriminala iraungitzen da, aurretik kondenako epai irmorik egon gabe. Horren ondorioz, prozesuarekin aurrera jarraitzea ezinezkoa da, egilearen eta egitateetan parte hartu duten gainerako pertsonen erantzukizuna ebatzi ezinez, baita legokien zigorra ezartzeko aukerarik egon gabe².

Honen aurrean, planteatzen den zalantza da, nola den posiblea erantzukizun kriminala iraungitzea, oraindik formalki sortu ez bada. Erantzukizun kriminala iraungitzeko gainerako inguruabarren kasuan zigorraren preskripzioa barne, ZK-ren 130.artikuluan barneraturikoak, irmoa den sententzia baten ondorioak dira, zeinean zigorgarria den arau-

¹ MONTERO HERNANZ, Tomás y DE VICENTE MARTINEZ, Rosario, *Justicia Juvenil, Tirant lo Blanch*, Valencia, 2016, 161.orr

² MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN, Victor y VALIENTE IVAÑEZ, Vicente, *Derecho penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona, 2016, 799.orr

haustearen existentzia zehazten da, egilearen erantzukizuna deklaratu eta zigor bat ezarri³.

Beste aldetik, zigorraren preskripzioari dagokionez, aplikagarria izango da zigorra epaiaren bitartez ezartzen denetik, zigor kodeak ezartzen duen epea igarotzen denean hura bete barik. Modu berean aplikagarri izango da, zigorraren betetzea ete egin den momentutik kodeak eskatzen duen denbora eman bada⁴.

Zigor Kodearen 130.7 artikuluan segurtasun neurrien preskripzioa ere barneratzen da zigor erantzukizuna iraungitzeko kausa bezala. Hala ere, interpretazio hertsia batetik, segurtasun neurriak ez dira zigorrak. Ordea, ZK-n egiten den arauketa jarraituz, figura juridiko honen preskripzioa posible izango da, delitugilearen erantzukizun kriminala iraungiz⁵.

2.2. Jatorria eta Bilakaera historikoa

Tradizionalki delituaren preskripzioa obligazioen preskripzio zibilarekin harremandu egin da. Horren arrazoi nagusia da preskripzioaren jatorria ordenamendu zibilean dagoela, hau da preskripzioaren arautzeak sistema juridiko-zibila jarraitu egin duela. Preskripzioa arlo zibilean eraginkortasuna lortuko du hiru bide nagusien bitartez: errugabetasun presuntzioa, arauaren salbuespena eta akzioaren egikaritzaren abandonua. Azken bide hau titularrak dituen eskubideen defentsaren ukoan edo arduragabekeria oinarritzen da⁶.

Preskripzioaren instituzioan, hura hasteko epea finkatzea, *dies a quo*, gai konplexuenetariko bat da. *Dies a quo*-ren ezartzea preskripzioa epea zenbatzen hasten den momentua definitzen du. Epe hau ezartzeko erabiltzen den irizpidea oso garrantzitsua

³ GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 35.orr

⁴ MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN, Victor y VALIENTE IVAÑEZ, Vicente, *Derecho penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona, 2016, 799.orr

⁵ MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN, Victor y VALIENTE IVAÑEZ, Vicente, *Derecho penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona 2016, 799.orr

⁶ DE VICENTE MARTÍNEZ, Rosario. *Vademécum de derecho penal*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2016.

izango da, izan ere horren arabera izango da subjektu batengan kondena ezartzeko edo subjektu horren erantzukizun kriminala behin betikoz iraungitzeko aukera. Historian zehar *dies a quo* ezartzeko irizpide desberdinak erabili egin dira, jarraian horrek instituzio beran izan duen eragina aztertuko da⁷.

Preskripzioaren bilakaera historikoa ulertzeko nahian, jarraian 1870-eko eta 1928-ko zigor kodeetan instituzioaren inguruan egiten den arautzea aztertuko dut. Zehazki preskripzioaren inguruko definizioaren eta epeen analisia burutuz.

Lehenik eta behin 1870-eko ZK-n egiten den arauketari dagokionez, azpimarratu behar da delituaren preskripzioa prozesuari eragiten zion kausa bat bezala ulertzen zela. Hau da, preskripzioa prozesua martxan jartzeko edo aurrera egiteko oztopo bat zen, delituaren jazarpena ekidinez. Kontzepzio honen oinarrian, *actio nata* kontzeptua barneratzen da, zeinaren arabera preskripzioaren epea zenbatzen hasiko da, hau da *dies a quo*, akzioa egikaritu daitekeen momentutik. Horren ondorioz, preskripzioa lortzeko aukera baztertzen da jazarpen akzioa ezin denean aurrera eramanez auzi-ihesaren kasuan. Kode honetan *dies a quo* delitua burutu den egunean finkatzen da, momentu horretan ezezaguna izanez gero delitua azaltzen den momentuan izango delarik⁸.

Bigarrenez, azalduko dudan ondorengo kodea 1928-koa izango da. Bertan, zenbatzeko epearen hasiera delitua burutzen den momentuan ezartzen da eta zenbaketa eteteko zenbait aukera barneratzen ditu. Hain zuzen ere, adierazten da zigor preskripzioaren etetea burutuko dela delituaren ikerketari edo zigorrari zuzentzen den edozein jarduketa judiziala martxan jartzen denean. Aurrean esandakoa ez da aplikagarri izango delituaren ikerketari edo zigorrari zuzentzen den jarduketa judiziala aurretiazko arazo baten ebazpenaren menpe dagoenean. Izan ere, kasu horietan preskripzioa etenda geratuko da, partikularraren gain erabakitzen den momentura arte⁹.

Aztertu dudan moduan, bi kodeetan preskripzioaren inguruan egiten den arauketari dagokionez, zenbait alde azpimarratu daitezke. Alde batetik, 1870-eko ZK-n preskripzioa delituaren jazarpena aurrera eramateko oztopo bat bezala ulertzen da. Horrek suposatzen du, kodean erantzukizun kriminala iraungitzeko kausa bat bezala barneratzen dela. 1928-

⁷ MARTÍNEZ PARDO, Vicente José. "La Prescripción Del Delito." *Revista internauta de práctica jurídica*.27, Valencia, 2011. 129.orr

⁸ GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 38.orr

⁹ *Ibíd.*

ko kodeari dagokionez, preskripzioaren erabileraren inguruko uste berdina barneratzen da. Beste aldetik, 1870-eko ZK-n preskripzioa epea zenbatzen hasiko da delitua burutzen den egunean edo azaltzen den momentuan. 1928-ko ZK-n ordea, ez da eskaintzen aukera hori, *dies a quo* delitu burutzen den egunean bakarrik ezartzen baita.

Bi kodeetan arautzen den sistemen bitartez preskripzioa lortzea oso zaila zen, horrek doktrinaren eta jurisprudentiaren gehiengo batek erabaki hori kritikatzera eraman zuen. Izan ere, 1870.urteko sisteman preskripzioaren epea martxan jarriko da delitua estalgabetzen den egunean eta hura ikertzeko eta zigortzeko prozedura judiziala hasten denean. Beraz, preskripzioa hasteko aukera bakarra izango litzateke Estatuak delituaren inguruko ezagutza osoa izatea eta egilearen susmorik ez izatea. Gainera, delituaren estalgabetzea manipulatzeko erreza da, norberaren interesei egokituz frogak aldatu daitezkeelako, estalgabetzea benetako ez den momentuan ezarriz. Beraz, arauketa hau ez da bateragarria segurtasun juridikoarekin. Beste aldetik, 1928.uteko kodean *dies a quo* delitua burutzen den egunean ezartzen badu ere, delituaren instrukzioak preskripzioaren etetea ezartzen du. Hortaz, bi kodeetan antzeko egoeran egongo ginateke. Izan ere, preskripzioa lortzea ia ezinezkoa bihurtzen da, hura lortzeko ezartzen diren denbora eta forma betekizun zorrotzengatik¹⁰.

Ikusi dugun moduan, bi kode horietan *dies a quo* momentuari dagokionez aldaketa barneratzen da. 1928-ko kodeak, delituaren estalgabetzea, delitua burutu den momentuagatik ordezkatzeko duelako. Hortik aurrera, hurrengo kodeetan: 1932. , 1944. eta 1995.urteko kodeetan arauketa berdina barneratzen da. Gaur egun ere, arauketa berdina jarraitzen da, geroago ikusiko dugu hori zer nolako ondorio eta inpaktu handia duen bereziki, sexu-abusuen eta -erasoen kasuan¹¹.

Bilakaera historikoarekin bukatzeko, aipatzea dago preskripzioaren oinarri juridikoak. Honen barnean bi teoria nagusitu ziren, instituzioari izaera prozesala aitortzen zaiona, batik bat frogaren zailtasunean eta prozesua bidegabe ez luzatzeko eskubidean oinarriturik eta izaera materiala onartzen zutena, arrazoi teoriko-sustantiboetan

¹⁰ GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 39-40.orr

¹¹ GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 41.orr

oinarriturik. Dena den, hurrengo atalean sakonduko dugu preskripzioaren oinarri juridikoetan.

Aurrean aztertuko kodeen ordena berdina jarraituz, 1928-ko koderako arte, instituzio honen inguruan egiten zen arauketa arrazoï prozesalean eta segurtasun juridikoan oinarritzen zen. Hemendik aurrera, *dies a quo*-ren berrikuntzarekin batera, preskripzioaren izaera materialaren alde egiten da, jatorri prozesalaren aldeko argumentuak bertan behera uzten diren bitartean. Izan ere, delitua jazartzeko akzioa, hura burutzen den momentuaren araberrako da¹².

Norabide berdina jarraituz, Auzitegi Gorenak 1963ko azaroaren 30ean emandako sententziaren bitartez, zigor preskripzioaren izaera materiala onartu egin zuen, instituzio honen inguruko jurisprudentzia garrantzitsua ezarriz. Bertan adierazi zen zigor preskripzioa denborak kontzientzia sozialean eragiten zuen lasaitasunean eta segurtasuna juridikoan oinarritzen zela. Are gehiago, adierazi egin zen ezinbestekoa zela zigor eta preskripzio zibilaren arteko desberdintasuna ezartzea, zigor preskripzioari izaera materiala esleituz. Bukatzeko barneratu zen, preskripzioa ordena publikoaren salbuespen bat bezala ulertu behar zela, prozeduraren edozein momentuan ofizioz adierazi daitekeelako¹³.

2.3. Oinarri juridikoak

Preskripzioaren jatorriaren eta oinarriari dagokionez, gai eztabaidagarria da, doktrinaren eta jurisprudentziaren artean iritzi uniformerik ez dagoelarik. Hain zuzen ere, preskripzioaren inguruko oinarri argirik ez egotearen ondorioz, instituzioaren funtzionalitatea bera zalantzan jartzea sortzen du sozietatearen artean, batez ere delitu larriak direnean. Bere jatorriari dagokionez mahaigaineratzen den arazoa da jatorria

¹² GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 41.orr

¹³ *Ibíd.*

prozesala edo materiala duen. Proposatzen diren oinarriari dagokionez prozesalak, penalak eta mistoak ditugu¹⁴.

1. Arrazoi prozesalak

Teoria honen aldeko posizionamenduak, prozesuaren bermeei dagokionez, arrazonamendu asko egon daitezkeen arren, hurrengo arrazoiak aipatu daitezke: frogaren zailtasuna denboraren igarotzearen ondorioz, prozesua arrazoizko epe baten barruan bukatzeko beharra, defentsarako eskubidea bermatzeko eta justiziaren errekursoak kasu berrietan zentratzeko¹⁵.

Eman diren arrazoiaren artean, bereziki interesgarria da lehenengoa. Horretan, frogaren inguruko teoria aipatu behar da. Horren arabera, denboraren igarotzearekin batera egintzaren, erruduntasunaren edo errugabetasunaren inguruko frogak desagertzen edo zailtzen dira. Ondorioz, akats judiziala emateko probabilitateak handitzen dira, segurtasun juridikoaren kontran eginez. Arrazoi honen garrantzia handia bada ere, kontuan izan behar dugu, bakarrik delituaren preskripzioerako erabilgarria izan daitekeela. Aldiz, argi dago zigorraren preskripzioa ez duela azaltzen¹⁶.

2. Arrazoi materialak

Instituzio honek jatorri material izan dezake, ordena publikoaren, interes orokorraren edo politika kriminalaren printzipioetan oinarriturik. Azken hau, zigorraren beharraren printzipioaren bitartez bideratzen da, honen barnean Estatuaren *ius puniendia*-ren gutxieneko esku-hartzea dagoelarik¹⁷.

Azken printzipio hau jarraituz, denboraren igarotzearen ondorioz, zigortzeko beharraren ahultzea ematen da, zigorrari loturiko helburuak lortzeko aukerarik ez dagoelako. Kasu

¹⁴ MOLINA FERNÁNDEZ, Fernando. "Memento Práctico Francis Lefebvre. Penal 2011." Ediciones Francis Lefebvre, Madrid, 2011, 582.orr

¹⁵ MOLINA FERNÁNDEZ, Fernando. "Memento Práctico Francis Lefebvre. Penal 2011." Ediciones Francis Lefebvre, Madrid, 2011, 582.orr

¹⁶ GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 43.orr

¹⁷ MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN, Víctor y VALIENTE IVANÉZ, Vicente, *Derecho penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona, 2016, 799.orr

honetan, prebentzio orokorraren ikuspegitik, denboraren igarotzeak delitua burutu zenean sortutako alarma soziala desagertzea suposatzen du. Honi gehitu behar da delitugilea denbora horretan harrapatu ez izateko etengabe jarri duen arreta zigor nahikoa dela uler daitekeela. Bestetik prebentzio bereziari dagokionez, delitugilea berriro ez badu deliturik egin eta behar bada sozietatean integratuta badago, ez dauka zentzurik zigorrik ezartzea¹⁸. Ildo beretik, denboraren igarotzeak Estatuak duen *ius puniendia*-ren egikaritzaren muga suposatzen du, arrazoi politiko kriminaletan oinarriturik. Hau da, zigorraren ezartzeari eta exekuzioari uko egiten zaio, denboraren igarotzearen ondorioz, hura aplikatzea desabantaila baino onura gehiago ekarriko lukeelako. Horren atzean behar soziala dagoelarik, harreman juridikoak modu iraunkorrean ziurgabetasunean ez egoteko¹⁹.

Modu berean, preskripzioaren oinarri materiala aitortzen zaio, instituzio berak prozeduraren edozein momentuan ofizioz deklaratu daitekeelako eta konstituzioaren oinarritzko eskubideei eragiten diolako. Hortaz, segurtasun juridikoa (EK-ren 9.3. art) eta prozesua arrazoizko denbora baino gehiago ez luzatzea (EK-ren 24.2. art) bilatzen da. Gainera, preskripzioaren epean eta baldintzetan aldaketak barneratzen direnean, atzera eraginkortasuna izango dute errudunarentzat onuragarria bada eta atzeraezintasuna kaltegarriak badira.²⁰.

3. Teoria mistoak

Bukatzeko bi teorien arteko oinarriak konbinatzen dituen teoria dago, mistoa alegia. Hori balioztatzen du, Konstituzio Auzitegiak 63/2005 epaiaren bitartez teoria honi jarraipena ematen diola esanez preskripzioa oinarri anitz dituela.

Konstituzio Auzitegiak adierazi zuen, delituen prozeduraren gelditzearen ondorioz ematen den preskripzioaren kasuan, kalifikazio prozesala izan dezakela bere aplikazioa akzioaren egikaritzaren ukoan baldintzaturik egonik. Edo beste aldetik izaera materiala izan dezake ordena publikoaren, interes orokorraren edo politika kriminalaren

¹⁸ MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN, Victor y VALIENTE IVAÑEZ, Vicente, *Derecho penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona, 2016, 799.orr

¹⁹ GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 43.orr

²⁰ MOLINA FERNÁNDEZ, Fernando. "Memento Práctico Francis Lefebvre. Penal 2011." Ediciones Francis Lefebvre, Madrid, 2011,581.orr

printzipioetan oinarriturik. Printzipio hauek zigorraren beharrezkotasunenarekin loturik daude, aldi berean Estatuaren gutxiengo parte hartzearekin, *ius puniendi*-aren egikaritzan, harremandurik. Azken kontzeptu honen arabera, preskripzioaren aplikazioa prozeduraren gelditzearen eta legeak ezarritako epearen mende dago²¹.

2.4. Preskripzio-epeak

Jarraian delituaren zein zigorraren preskripzio epeak aztertuko ditugu. Hasteko, azpimagarria da delituaren preskripzioaren kasuan epeak laburragoak direla zigorraren preskripzioarekiko. Hau da, delitua epaitua izan ez denean kodeak ezartzen duen epea erantzukizun kriminala iraungitzeko laburragoa izango da, zigorra ezarri denean baino. Arrazoizkoa da zigorraren preskripzioa luzeagoa izatea, kasu horretan delitugile zehatzaren kontrako sententzia irmoa dagoelako, zeinetan pertsona horren erantzukizun kriminala onartzen da. Delituaren preskripzioaren kasuan, ordea, ustezko delitugilearen kontrako prozesu osorik ez da zuzendu, beraren erruduntasuna eta zigorra ezartzen duen sententziarik ez dagoela²².

Hori horrela izanik, delituaren preskripzioari dagokionez, hurrengo epeak ezartzen dira ZK-ko 131.1 artikuluan:

“Hogei urteetara, delituaren gehieneko kartzela zigorra hamabost urte edo gehiago denean.

Hamabost urteetara, legeak ezartzen duen gehieneko epea hamar urte baino gehiagoko gaitasun gabetzea denean, edo kartzela zigorra hamar urte baino gehiago baina hamabost baino gutxiago denean.

Hamar urteera, gehieneko kartzela zigorra edo gaitasun gabetzea 5 urte baino gehiago denean eta ez denean 10 urte baino gehiago.

Bost urteetara, gainerako delituen kasuan, delitu arinen eta kalumnia eta irain delituetan izan ezin, urte batean preskribatzen direla.”

²¹ GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel. *La prescripción en el derecho penal*. Dykinson, Madrid, 2003. 43.orr

²² MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN, Victor y VALIENTE IVAÑEZ, Vicente, *Derecho penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona, 2016, 800.orr

5/2010 Lege Orgarikoaren bitartez delituaren preskripzioaren epeen kasuan aldaketa garrantzitsua barneratu zen. Hori dela eta, erreforma baino lehenago ZK-aren 131.1.5 artikuluan arautzen diren hain astunak ez direnen delituen kasuan, epea 3 urteko zen, erreformaren ondorioz 5 urteera luzatu zelarik. Erreforma honen bitartez bi helburu nagusi lortu nahi ziren: sozietateak sistema judizialaren eraginkortasuna etengabe zalantzan jartzea ekiditea eta delitu hauetan biktimek delitugileekiko daukaten inpunitate ustea ezabatzea. Gehiago aztertu behar bada ere, ondorioztatu daiteke, preskripzioaren figuraren baliagarritasuna zalantzan jartzen dela nolabait, preskripzioaren epeak luzatzeko jarraitzen ari den joeragatik. Hau da, modu honetan preskripzioaren figuraren garrantzia eta oinarria kolokan jartzen da, izan ere argia izango balitz ez litzateke beharrezkoa izango luzatzea²³.

Preskripzioaren epea zenbatzeko momentuari dagokionez, preskripzioa zenbatzen hasten den unea edo *dies a quo*, aurretik ikusi dugun moduan, delitu burutzen den momentuan ezartzen da. Zenbaketa datatik datara egiten da, hilabete horretan egun bera ez badago hilabetearen azken eguna erreferentziatzat hartuko da²⁴.

Bestetik, preskripzioaren epearen zenbaketa zehazteko gehiengo baten ustez zigor abstraktua oinarritzat hartu behar da. Hau da, legegileak delitu bakoitzari egosten dion epea, parte-hartze gradua eta inguruabarrak kontuan hartu gabe. Are gehiago, kontuan hartu behar da kalifikazio juridikoak prozesuaren zehar aldaketak jasan dezakela. Hori dela eta preskripzioaren efektuekiko kontuan hartu behar den kalifikazioa zein den jakiteko AG-eko 2010ko urriaren 26ko batzarraren akordio ez jurisdikzionalera jo behar da. Akordio honen helburua da delituaren preskripzioaren zenbaketan kontuan hartu behar den irizpidea ezartzea, oinarrizko tipo penala eta delitua larriagotzen duten azpimotak daudenean. Horren arabera, egindako delituari dagokion epea izango da, ebazpen judizialean adierazten dena alegia. Beraz, auzitegiak onartzen ez dituen astungarriak ez dira kontuan hartuko preskripzio epea ezartzeko²⁵.

²³ GARCÍA GARCÍA-SOTOCA, Francisco Javier "La prescripción del delito." *Revista Jurídica de Canarias*, Canaroas, 2011, 79-96.orr

²⁴ MOLINA FERNÁNDEZ, Fernando. "Memento Práctico Francis Lefebvre. Penal 2011." Ediciones Francis Lefebvre, Madrid, 2011, 583.orr

²⁵ AGren 2.gelako Batzarraren akordio ez jurisdikzionala, 2010eko urriaren 26koa.

Jarraian, denboraren zehar garatzen diren delituen kasuan preskripzio epea zenbatzeko *dies a quo* zein den aztertuko dut, modalitate bakoitzaren berezitasunak aztertuz. Delitu hauen artean hurrengoak daude:

1. Delitu egiten denetik, emaitza sortu arte denbora epe bat igarotzen denean: Adibidez, delitu honetan barneratu daiteke osasunaren profesional batek ebakuntza akastuna egiten duenean, eta denbora igaro ahala biktimaren osasunean kalte larriak sortzen direnean. Kasu honetan eztabaidatzen da epea zenbatzen hasi behar bada, egintza egiten den momentuan edo emaitza ematen denean. Alde batetik, ZK-ren 7.artikulua jarraituz, delitua burutzen dela ulertuko da subjektua egintza egiten duen momentutik edo behartuta zegoen egintza egiten ez duen momentutik. Hala ere, artikulua aplikatzen bada arazo praktikoak sortzen dira, delitu bat preskribatzen hasiko zen emaitza sortu baino lehen eta ez luke zentzurik izango emaitza denbora epean luzatzen bada. Horren ondorioz, doktrinaren parte baten ustez erreferentziatzat hartu behar da delituaren emaitza sortzen den momentuan. Hala ere, irtenbide hau ez da guztiz egokia ZK-ren 7.artikuluaren kontra doalako eta preskripzioaren jatorri materialarekin bat ez dagoelako²⁶.
2. Jarraikako delituetan, iraunkorretan eta ohikotasuna eskatzen den delituetan, zenbaketa hasiko da egintza gelditzen den momentutik. Hau da, delitu iraunkorretan eta ohikotasuna eskatzen diren delituetan legez kontrako jarrera gelditzen den momentutik eta jarraikako delituetan azken arau-haustea ematen den momentutik²⁷.
3. Egoera bat sortzen duten delituak, uneko burutzea duten delituak dira, baina denboran zehar luzatzen den egoera sortzen dute. Hori dela eta, plazaratzen den arazoa da epea zenbatzen hasi behar den, delitua egiten den momentuan edo legez kontrako egoera desagertzen denean. Honen aurrean ez dago jarrera argirik, ordea, egoera egokiena delitu mota hauei, delitu iraunkorren tratamendua ematea izango litzateke, haien arten duten harreman estua dela medio²⁸.

²⁶ MOLINA FERNÁNDEZ, Fernando. "Memento Práctico Francis Lefebvre. Penal 2011." Ediciones Francis Lefebvre, Madrid, 2011, 584.orr

²⁷ *Ibíd.*

²⁸ MOLINA FERNÁNDEZ, Fernando. "Memento Práctico Francis Lefebvre. Penal 2011." Ediciones Francis Lefebvre, Madrid, 2011 585.orr

4. Beste batek burututako delituaren parte-hartze kasuetan ere eztabaidatzen da preskripzioa epea zenbatzeko hasi behar den delituaren egilearen epearekin batera edo parte hartzaileak, bere esku hartzea gelditzen duen momentutik. Azken erabakia izan da parte-hartzailearen egintza ez dela preskribatzen hasiko egilearena preskribatzen hasten den arte²⁹.
5. Adingabeen kontrako delituak: Kasu honetan adingabeek bere eskubideak defendatzeko aukera izan dezaten, preskripzioaren epea zenbatzen hasiko da, adin-nagusitasuna eskuratzen duten momentuan, edo biktima lehenago hiltzen bada, hil egin den momentutik³⁰.

Bukatzeko, delitu pilaketa edo elkarren artean lortura duten delituen kasuan, preskripzioaren zenbaketaren epea zehazteko delitu astunena erreferentziazat hartuko da. Hau da, delitu astunenaren epea kontuan hartuko, zein den aplikatu behar den preskripzio epea zehazteko³¹.

Zigor preskripzioaren kasuan, ebazpen irmoaren bitartez ezarritakoa, aplikagarria izateko hurrengo epeen igarotzea beharrezkoa da, ZK-ren 133.1 artikuluan ezarrita:

*“Hogeita Hamar urte, hogeit hiru baino gehiagoko kartzela zigorretan
Hogeita bost urte, hamabost baino gehiago eta hogeit hiru urteko kartzela zigorretan
Hogei urte, hamabost baino gutxiago eta hamar baino gehiago kartzela
zigorretan eta hamar urte baino gehiagoko gaitasungabetze zigorretan
Hamar urte, gainerako zigor astunetan
Bost urte, zigor ez hain astunetan
Urte bat, zigor arinetan”*

Kasu honetan erreferentziazat hartzen den zigorra ez da izango delituaren preskripzioan kontuan hartzen dena, hau da zigor abstraktua. Baizik eta, ebazpenaren bitartez ezartzen

²⁹ Ibíd.

³⁰ Ibíd.

³¹ Ibíd.

den zigorra kontuan hartuko da. Beraz, preskripzio epea zenbatzen hasiko da ebazpen irmoa eman zenetik edo kondenaren haustea ematen den momentutik³².

2.5. Preskripzio-etena

Zigor Preskripzioaren etena gai eztabaidatua izan da doktrinaren eta jurisprudentiaren artean, zehazki Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren artean. Honen arrazoia izan da, legeak ezartzen duen araua preskripzioa eteteko zehaztugabea dela. Hau da 10/1995 LO-ren bitartez, ZK-ren 132.2 artikuluan ezartzen da preskripzioaren epea etengo dela prozedura errudunaren kontra zuzentzen denean. Beraz, ikus daitekeen bezala, artikularen idazketa ez da argia, ez baita ezartzen zein egintza prozesal zehatza beharrezkoa den preskripzioaren epea eteteko³³.

Alde batetik, AG-k interpretatu zuen ZK-ren 132.artikulutik ondorioztatu daitekeela preskripzioaren etetea emango dela kereila edo salaketaren aurkeztearekin. Horren isla da 162/2003 AG-aren sententzia, bertan adierazten baita salatzailearen edo kereilariaren borondatea erregistro publiko judizialaren barneratzearekin nahikoa dela pertsona baten kontrako jarduera penala egoteko³⁴. Modu berean 71/2004 AG sententzian adierazten da kereila eta salaketa prozeduraren parte denez preskripzioa eteteko nahikoa dela. Beraz, ondorioztatu daiteke preskripzioaren etetea emateko nahikoa dela instrukzio epaitegiaren aurrean kereilaren edo salaketaren aurkeztearekin, hura onartzeko ebazpen judiziala behar gabe³⁵.

Beste Aldetik, Auzitegi Konstituzionalak 63/2005 sententziaren bitartez hurrengo adierazi egin zuen preskripzioaren etetearen inguruan: Kereilaren eta salaketaren gain beharrezkoa da egintza judiziala bat egotea. Hau da, pertsona baten kontran prozedura bat zuzendu dela ulertzeko beharrezkoa da egintza judizialaren tarteratzea, babes judizial eraginkorraren oinarrizko eskubidea errespetatzeko³⁶.

³² LASCURAÍN SÁNCHEZ, Juan Antonio, *Introducción al derecho penal*, Civitas, Madrid, 2015. 422.orr

³³ MARTÍNEZ PARDO, Vicente José. "La prescripción del delito." *Revista internauta de práctica jurídica*.27, Valencia, 2011. 132.orr

³⁴ Espainiako Auzitegi Gorenaren sententzia, 2003ko otsailaren 4koa (162/2003)

³⁵ MARTÍNEZ PARDO, Vicente José. "La prescripción del delito." *Revista internauta de práctica jurídica*.27, Valencia, 2011.134.orr

³⁶ Konstituzio Auzitegiaren epaia, 2005eko martxoaren 14koa (63/2005).

Aurrean aipatutako sententziaren ondorioz, eztabaida sortu egin zen, Auzitegi Konstituzionalak AG-aren doktrina aldatzeko duen legitimazioaren inguruan. Horren aurrean AG-ak 2005eko maiatzean egindako batzar ez jurisdikzionaletan, adierazi egin zuen AG-ari dagokiola zigor arauen interpretazioa, azken instantzia delarik³⁷. Azken akordio hau berriro onartu egin zen 2006-ko apirilaren 25ean eta 2008ko otsailaren 26an, AG-aren 2.gelak egindako batzarretan. AG-aren eta KA-aren arteko gatazkaren ondorioz, Estatuko Fiskaltza Orokorrak 5/2005 instrukzioa eman zuen, preskripzioaren etetearen ingurukoa, zeinaren bidez Auzitegi Gorenaren doktrinaren alde egiten du³⁸.

Azken urteetan sortutako eztabaidei bukaera jartzeko nahian, preskripzioaren arauketa zehatza barneratzen da 5/2010 LO-aren bitartez. Izan ere ZK-ren 132.2 artikulua aldaketa barneratu zen, delituaren preskripzioaren etetearen ingurukoa. Horren arabera, prozedura hasieratik delituaren erantzulea zenaren kontrari zuzentzen denean, preskripzioa epea berriro zenbatzen hasiko da prozedura eteten den momentutik edo kondenarik gabe amaitzen denean. Pertsona baten kontrari prozedura zuzentzen dela ulertuko da, kausari hasiera ematen zaionean edo arrazoitutako ebazpen judizialaren bitartez bere partizipazioa finkatzen denean delitu baten inguruan³⁹.

Preskripzioaren etetea emateko kereila edo salaketaz gain beharrezkoa da Instrukzioko epaileak onartzea pertsona konkretu baten kontrari kausaren zabaltzea edo beraren kontrari prozesua zuzentzea beharrezkoa dela. Hau da, pertsona zehatz baten kontrari zuzentzen den prozeduraren egintza judiziala beharrezkoa dela⁴⁰.

Hortaz, ZK-ren 132.2.3 artikulua arabera preskripzioaren etenaldia gauzatzeko beharrezkoa da prozedura zuzentzen den pertsonaren identifikazioa argi geratzea ebazpen judizialaren bitartez, zuzenenean edo beste datuen bitartez burutu daitekeelarik, beti ere egintza egozten zaion taldearen edo antolakuntzaren barnekoa dela egiaztatu daitekeenean⁴¹.

1/2015 Lege Organikoaren erreformaren baino lehen, ZK-k zigor preskripzioaren etetea emateko kausen artean zigor arau-hausteen preskripzioa bakarrik arautzen zuen, zigorren

³⁷ EAGren 2.gelako Batzarren akordio ez jurisdikzionala, 2005eko maiatzaren 12koa.

³⁸ Estatuko Fiskaltza Orokorraren Instrukzioa 5/2005, preskripzioaren etenaren ingurukoa, 2005ko ekainaren 15koa.

³⁹ MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN, Victor y VALIENTE IVANÉZ, Vicente, *Derecho penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona, 2016. 810.orr

⁴⁰ *Ibíd.*

⁴¹ *Ibíd.* 811.orr

preskripzioa kontuan hartu gabe. Honen aurrean KA-k adierazi egin zuen zigorraren preskripzioa eteteko kausen hutsune legala izan arren, ezin zela aplikatu era berean zigor arau-hausteen prozedurei dagokionak. Gainera zehaztu zuen indultu baten kasuan zigorraren etetea ematean eta babes errekurtsua tarteratzen zen kasuetan ez zela preskripzioa eteten⁴².

Ondoren, 1/2015 LO-ren bitartez adierazi zen zigorraren preskripzioaren epea esekituko dela: Zigorraren exekutzea epea esekitzen denean eta beste zigorrak betetzen direnean, 75.artikulua aplikagarria bada. Hau da, ZK-ren 134.2 artikulua barneratu baino lehen doktrinaren eta jurisprudentiaren artean ez zegoen akordiorik zigorraren exekuzioaren esekitzearen inguruan(KALO 56.art), aldi berean preskripzio epearen esekitzea sortzen duen. Konstituzio Auzitegiak epearen esekitzearen aurka agertu zen. Hori dela eta, legegileak artikulua honen barneratzearekin bilatzen du, lehen zegoen hutsune legala betetzea, bertan agertzen diren kasuetan preskripzio epearen esekitzea posiblea izateko⁴³.

2.6. Preskribaezintasuna

Preskripzioaren arauaren salbuespena da. Zigor arloan figura juridiko honekin ustezko delitugilearen edo delitugilearen erantzukizun kriminala iraungitzen den bitartean kodean ezartzen den epea ematen denean, preskribaezintasunak sortzen duen ondorio juridikoa kontrako izango da. Hau da, gizartearentzat egitate horien esanahia duen larritasunagatik, denboraren igarotzeak ez du uzten delitu horien larritasuna ahaztea. Barne zuzenbidearen ikuspegitik, zenbait delituen preskribaezintasuna Zuzenbideko Estatu demokratiko, soziala eta konstituzionalaren berme bezala ulertu behar da⁴⁴.

Giza eskubideen inguruko nazioarteko tratuetan ezarritakoa jarraituz eta pertsona beraren duintasunaren alde eginez, delitu mota zehatzetan ezin da preskripzio eperik ezarri. Zehatzago izanez, delitu oso larrien, giza eskubideen urratzea ematen denean, ikerketa,

⁴² LASCURAÍN SÁNCHEZ, Juan Antonio, *Introducción al derecho penal*, Civitas, Madrid, 2015. 423.orr

⁴³ CARDENAL MONTRAVETA, Sergi, *La prescripción de la pena tras la Reforma del Código penal de 2015*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2015.

⁴⁴ BERNALES ROJAS, Gerardo, "La imprescriptibilidad de la acción penal en procesos por violaciones a los derechos humanos." *Ius et Praxis* 13.1, 2007, 245-65.orr

epaitzea eta akusatzea burutzeko. Kasu horietan estatuek ezin dute preskripzio eperik jarri nazioarteko zuzenbidean⁴⁵.

Beste ikuspegi batetik, delituaren preskribaezintasuna kodean barneratuz gero, zigortzeko-lehenaldi bati atzera-egitea suposatzen du. Estatuko erakundeen bitartez, sozietateak eta legeak momentu batean delituaren jazartzeari uko egin behar diote. Preskribaezintasuna Kode demokratiko baten parte ez da. Orokorrean delitu hauen jazarpenera, kontzientzia txar baten ondorioa da, delitu horiek gauzatzea baimentzeagatik. Horren ondorioz, denborarekin delitu horien jazarpeneraren itxura eman nahi da⁴⁶.

Lehenik eta behin 1995. urteko ZK-k barneratu zuen delitu baten preskribaezintasuna Espainiar Zuzenbidean, hain zuzen ere genozidioa. Ondoren 15/2003 legearen bitartez gizartearen kontrako delituen eta gatazka armatuaren kasuan pertsonen eta babestutako ondasunen kontrako delituen preskribaezintasuna aitortu zen. Erreforma hauen bitartez Zuzenbide Espainiarra nazioarteko zigor zuzenbideari egokitu zen⁴⁷.

Nazioarteko zigor zuzenbidearen preskribaezintasuna aztertzeko ezinbestekoa da 1998-ko Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua kontuan hartzea. Izan ere, estatutu honen 29.artikuluan barneratzen da Gorteak eskuduna den krimenetan preskribaezinak izango direla. Delitu horiek zeintzuk diren jakiteko estatutu beraren 5.artikulura jo behar da. Bertan adierazten da Gortearen eskumena nazioarteko komunitatearentzat larrien diren krimenetara mugatzen dela. Hori horrela izanik, Gorteak eskumena izango du hurrengo delituetan: a) Genozidioa, b) Gizartearen kontrako krimenak, c) Gerra krimenak, d) Agresio krimena. Azken delitu honen kasuan, Gorteak eskuduna izango da 121. eta 123. artikulua jarraituz xedapen bat onartzen denean.

Ondoren 5/2010 Lege Organikoaren bitartez preskribaezina den delitu berri bat barneratu zen Zigor Kodean, hain zuzen ere terrorismo delituak gutxienez pertsona baten heriotza gauzatzen baldin badu. Izan ere, preskripzioaren oinarrien atalean azaldu dudan moduan,

⁴⁵ BERNALES ROJAS, Gerardo, "La imprescriptibilidad de la acción penal en procesos por violaciones a los derechos humanos." *Ius et Praxis* 13.1, 2007, 245-65.orr

⁴⁶ VÁZQUEZ IRUZUBIETA, Carlos, *Comentario al Código Penal : actualizado por LO 5/2010, de 22 de junio*, La Ley, Madrid, 2010. 341.orr

⁴⁷ SILVA, Jesús María, *El nuevo Código Penal : comentarios a la reforma*, La Ley, Madrid, 2012. 224orr

preskripzioaren oinarrien artean denboraren igarotzearen ondorioz zigorra ezartzeko behar eza dago. Beraz, terrorismo delituen kasuan, subjektuek talde terroristen menpe edo kolaborazioan lan egiten dutenez ezin da aurreko oinarria aplikatu, erantzuleak bizirik irauten duten bitartean zigorra ezartzeko beharra dagoelako⁴⁸.

Barneraketa honekin batera Espainiako Zigor Kodea beste ordenamendu juridikoei hurbiltzen da. Izan ere Alemanian eta Austrian erailketa delitua preskribaezinen artean dago. Hala ere, Espainiar ZK-n ez dira preskribaezinak bizitzaren kontrako delitu guztiak, bazik eta terrorismo delituaren ondorioak direnak, 572.artikuluaren tipifikaturik⁴⁹.

Lehen aipatu dudan moduan, azken hamarkadetan jarraitzen den joera preskripzioaren eremuan, epeen luzatze izan da delituen eta zigorren kasuan. Horrekin batera preskribaezinak diren delituetan tipo penal berriak barneratuz joan dira, azkena terrorismo delitua izan delarik. Hori dela eta, horrekin batera nolabait lerro bat zabaltzen da, delitu larri gehiago preskribaezinak bihurtzeko. Honekin batera, jarraian aztertuko dudan moduan badaude sexu-abusuak eta -erasoak preskribaezinak burutzekoaren alde agertzen direnak, bereziki biktima adingabea denean⁵⁰.

⁴⁸ SILVA, Jesús María, *El nuevo Código Penal : comentarios a la reforma*, La Ley, Madrid, 2012. 225.orr

⁴⁹ SILVA, Jesús María, *El nuevo Código Penal : comentarios a la reforma*, La Ley, Madrid, 2012. 226.orr

⁵⁰ *Ibíd.*

III. SEXU-ASKATASUNAREN ETA SEXU-UKIGABETASUNAREN KONTRAKO DELITUAK

3.1. Sarrera

Preskripzioaren gaia aztertzeko modu zehatza batean, sexu-abusuak eta -erasoen delitua biktimak adingabea denean aukeratzea erabaki dut. Izan ere, egunerokotasun asko hartzen duen gaia da, horren inguruan egon den mobilizazioa eta gobernuak berriki onartu duen Indarkeriaren aurrean Hautzaroa eta Nerabezaroaren babesteko Lege Organikoaren aurreproiektuaren ondorioz.

Preskripzioa biktimak justiziara heltzeko duen eskubidea baldintzatzen duen heinean, zenbait delituetan hura sortzen dituen efektuen ondorioak garrantzitsuagoak dira. Horren kasua, adingabeek jasaten dituzten sexu-erasoak eta sexu-abusuak dira. Izan ere, aurrerago azalduko dudan moduan, asimilazio geldoko delituak dira. Horri gehitu behar zaio adingabeak helduarekiko desabantaila egoeran dagoela, ekintza sexuala osotasunean ulertzeko gai ez delako. Ondorioz, delituaren berri emateko denbora gehiago behar du.

Sexu-delituak, azken urteetan komunikabideen eta gizartearen tarteka erdigunean kokatzen den gaia da, baita eztabaida soziala pizten duen gaia da. Hau da, delitu horien inguruan gizarteak duen kontzientzia maila asko handitu da, komunikabideetan baita kalean oihartzuna sortzen duen gaia delarik. Hala ere, gai hau jorratzen denean, orokorrean sexu-abusuen terminoa erabiltzen da, nahiz eta jakin badakigu adingabeek jasaten dutenak ez direla beti abusuak, batzuetan sexu-erasoekin aurkitzen gara edo sexu-ukigabetasunarekin lotura duten beste hainbat figuren aurrean. Kasu honetan, erabakia izan da sexu-abusuetan eta sexu-erasoetan oinarritzea lana. Izan ere, erabaki egin dut oinarritzko figura horietan zentratzea, preskripzioaren inpaktua ikusteko erabilgarrienak izan daitezkeelako⁵¹.

⁵¹ Gaur egun sexu-erasoak eta sexu-abusuak tipo penal desberdinetan arautzen badira ere, aipatu behar da bateratzeko asmoa dagoela. 2020ko martxoan, ministroen kontseiluak onartu egin baitzuen sexu-askatasunaren berme osoaren inguruko Lege Organikoaren Aurreproiektua. Horren arabera, sexu-erasoen eta -abusuen arteko desberdintzea ezabatzen da. Horrela, sexu-erasoen kontsiderazioa izango dute beste pertsonaren baimena izan gabe, sexu-askatasunaren kontran egiten dituzten jokabideak.

Biktima adin txikia den sexu-delituen kasuan, beharrezkoa da azpimarratzea mota hauetako delituek Espainiako legedian azken 15 urteetan gehien jorratu den gaietako bat izan dela. Izan ere, gaia gutxik bultzatu dituzte hainbat erreforma, horren adibide izan daiteke jarrera sexualak izateko adina 16 urtera igo zutenean 1/2015 LO-ren bitartez. Erreforma beraren bitartez, *Child Grooming* tipo penal berria barneratu zuten, behar sozial berriei egokitzeko. Honi gehitu behar zaio, delitu hauetan nagusitzen den norabide zigortzailea. Egoera hau bultzatu duten faktoreen artean hurrengoak aurki ditzakegu: Alde batetik, jarrera hauek praktikan burutzen direnean bereziki hunkipen soziala sortzen dute gainerako delituekin alderatuz, batez ere komunikabideek horietan enfasia egiten dutenean⁵².

Adingabeen sexu-erasoen eta -abusuen inguruko gaia duen garrantzia ikusteko, delituaren intzidentzia aztertuko dut. Horren isla, *Save the children* erakundeak 2019.urtean eskainitako datuak dira. Horren arabera, populazioa espainiarraren %10-%20 bitartean sexu-erasoen eta -abusuen biktima izan da haurtzaroan, ordea kasu guztien %15-a baino ez da salatua izan. Gainera delitu hauen kasuan, azpimarratu behar da elizaren barnean burutu diren sexu abusuen zenbatekoa, hau da elizaren kideen aldetik egon den estalketa zenbait urteen zehar onartezina da, baita horren ondorioz egoera hori salatzea erabaki duten biktimek jasan duten tratua eta babes falta⁵³.

Gai honen inguruan IV. puntuan sakonduko badut ere, aipatu behar da adingabeen sexu-erasoak eta -abusuak helduekiko bereizten direla, delitugilearen eta biktimaren artean dagoen sekretismoagatik, hau da hura sortzen duen isilpena handiagoa delako. Helduaren eta adingabearen artean dagoen botere harremana dela eta, ezkutuan mantentzea errazagoa da. Hain sekretuak dira delitu horiek, ondorioak ekartzen dituela. Ikuspegi juridiko batetik ondorio zuzena da, delitu horien preskripzioa, adingabeak bere inguruan kontatzeko behar duen denbora dela eta. Biktimaren aldetik isilpena hau apurtzeko urteak beharrezkoak dira, sexu-erasoa eta -abusua bukatu denetik. Horren arrazoen artean

⁵² RAMOS VÁZQUEZ, José Antonio. *Política criminal, cultura y abuso sexual de menores: un estudio sobre los artículos 183 y siguientes del código penal*. Tirant lo Blanch, Valencia, 2016. 19.orr

⁵³ Save the children gobernuz kanpoko erakundeak, 1919 urtetik, lan egiten du haurtzaroaren eskubideak defendatzeko. Informazioa gehigarria: <https://www.savethechildren.es/>

hurrengoak aurkitzen dira: faktore pertsonalak, eta sexu-abusuen esperientziari lotutako erantzun soziala, jarraian aipatuko direlarik⁵⁴.

2015.urtean Vicki Bernadet Fundazioak⁵⁵ egindako ikerketaren bitartez, 20 emakume eta 3 gizon, haurtzaroan sexu-abusuen biktima izandakoak, elkarrizketatu ondoren adierazi egin zuten egitateak ez salatzea erabaki zutela hurrengo arrazoiengatik: %64,3-a biktimak abusatzailearekin zituen harreman familiarrengatik, %57,1-a salaketa aurkeztea zeukan esanahi eza, %50 oroitzapenen errepresioaren ondorioz edo jasandako abusuarekiko zeukan nahasmena, emozionalki salaketa tarteratzeko prest ez egoteagatik, gurasoek edo familiarrek abusuen berri ez izateagatik eta sistema judizialarekiko konfiantza ezagatik (azken hauek kasuen %42,9 ordezkatzeko dutelarik)⁵⁶.

Orokorrean biktimak nerabezaroaren zehar prozesu batetik igarotzen dira, zeinaren bitartez adin helduan gertakariei aurre egitea baimentzen die. Hala ere, beharrezkoa da heldutasun-maila bat eskuratzea, hau da garatze pertsonala eta hausnarketa prozesua, autoritatearen aurrean gertatutako salatzeko prest egoteko. Biktima bakoitzaren ezaugarrien arabera, baita inguruaren arabera, kasu askotan bizi izan dutena jakinarazteko gai direnean, delitua preskribatu egin da, eta biktimak egitateak salatzeko gaitasunik ez dauka⁵⁷.

Egoera horren aurrean haurren eskubideek babesten dituzten zenbait erakunde (*Save the children, Plataforma de infancia, Unicef*) “ Indarkeriaren aurrean haurtzaroa eta nerabezaroa babespen osoa emateko lege organikoaren aurreproiektua”-ren onartzea eskatzen dute delitu horien preskripzioa luzatzeko. Hau da, gaur egungo legeriaren arabera adingabeek biktimak diren delituen kasuan, preskripzioa epea hasiko da adingabeek 18 urte betetzen ditueneko edo hiltzen den momentutik. Lege honen bitartez,

⁵⁴ PEREDA BELTRAN, Noemí y GÓMEZ MARTÍN, Victor. "La prescripción de delitos sexuales con niños víctimas: un análisis multidisciplinar." Centre de'Estudis Jurídics y Formació Especializada, Catalunya, 2018. 7.orr

⁵⁵ Vicki Bernadet Fundazioa, Plataforma de la Infancia delakoaren parte dena. Bere jarduera eremu familiarrean eta haurraren konfidantza eremuan gertatzen diren sexu-abusuen sentsibilazioan eta prebentzioan oinarritzen da.

⁵⁶PEREDA BELTRAN, Noemí y GÓMEZ MARTÍN, Victor. "La prescripción de delitos sexuales con niños víctimas: un análisis multidisciplinar." Centre de'Estudis Jurídics y Formació Especializada, Catalunya, 2018.10.orr

⁵⁷ Ibíd.12.orr

beste helburuen artean, preskripzio epea biktimak 30 urte arte etetea bilatzen da, hau da, adin horretan preskripzioa epea hastea.

3.2. Babestutako ondasun juridikoak

Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aukako delituak bezala barneratzen dira gaur egun, baina ez da horrela beti izan. Izan ere, XIX. mendetik, 1848ko kodetik 1989ko kodera arte, zigor kode espainiarrek delitu sexualen arauketari eskainitako tituluak aldaketak jasan ditu⁵⁸.

Lehenik eta behin zintzotasunaren kontrako delituak bezala barneratuta zeuden. Titulu honen azpian araututako jarrerak harremanduta zeuden ezkontza-aginduari, obedientzia familiarrari eta ohitura onak bezala ezagutzen zirenei; adulterioa, bahiketa eta eskandalu publikoa arautzen baitzen . Beraz, honen helburu nagusia ohiturak eta morala babestea zen, familiaren oinarria baitzen. Horrela, emakumearen zintzotasunaren babesaren bitartez, batez ere babesten zen ordena familiarra eta giza-ordena sexu-rolen arabera ezarritakoa⁵⁹.

Ondoren, sexu-askatasunaren kontrako delituen tituluaren azpian arautu ziren . Sexu-askatasunaren barneraketarekin aurrera pauso handia suposatu zuen. Alde batetik, pertsona guztien eskubide berdina onartzen duelako erabaki sexualaren manifestazioa askean oinarriturik. Beste aldetik, sexualitatearen onarpen positiboa suposatzen duelako norberaren garapen pertsonalaren intimitatean. Bukatzeko gaur egun duen izenburua eskuratu zuen⁶⁰.

Sexu-askatasuna, pertsona bakoitzak sexu eremuan modu autonomoan erabakitzeke duen gaitasuna bezala definitzen da. Eszitazioarekin eta asebetetzearekin harreman zuzena daukaten aktibitateen eremuan hain zuzen ere. Hau da, norberak nahiago duen aukera

⁵⁸ LAMEIRAS FERNÁNDEZ, María, y ORTS BERENQUER, Enrique. "Delitos Sexuales Contra Menores. Abordaje Psicológico, Jurídico Y Social." *Tirant lo Blanch*, Valencia, 2014. 27.orr

⁵⁹ ASUA BATARRITA, Adela, "Las agresiones sexuales en el nuevo Código Penal: Imágenes culturales y discurso jurídico", *Emakunde-instituto Vasco de la Mujer*, Vitoria, 1998. 11.orr

⁶⁰ ASUA BATARRITA, Adela, "Las agresiones sexuales en el nuevo Código Penal: Imágenes culturales y discurso jurídico", *Emakunde-instituto Vasco de la Mujer*, Vitoria, 1998 20.orr

sexuala hautatzeko eta praktikatzeko eskubidea barneratzen du, baita momentua aukeratzeko eta norberaren gorputzaz baliatzeko hura aurrera eraman daitezen. Beraz, eskubide horretan barneratzen da norekin partekatu nahi den pertsona hautatzeko askatasuna, beti ere honen baimena badago. Horren ondorioz, kontrako zentsuan ulertzen da, beste pertsonak egiten dituzten proposamenak ukatzeko askatasuna⁶¹.

Gure gaira hurbilduz, sexu-ukigabetasuna, jatorri sexuala duen jarreraren parte hartzea erabakitze gai ez diren pertsonen garapen pertsonalean eta sexualean izan dezakeen kaltea ekiditeko eskubidea da. Zigor Kodeak, *iuris et de iure* presuntzioa barneratzen du, izan ere jatorri sexuala duten jarreretan erabakitze eta parte hartzeko gaitasun eza ezartzen du hurrengo kasuetan: biktimak 16 urte baino gutxiago dituenen, babes berezia behar duten ezgaituak direnean eta drogen, farmakoen edo beste substantzia kimikoen bitartez borondatea bertan behera daukaten pertsonak⁶².

Beraz, 16 urte baino gutxiagoko adin txikiak edo ezgaituak diren pertsonak izaera sexualeko ekintzetan modu aktiboan edo pasiboan parte hartzea babestu nahi da. Hau da, eremu sexualean kalterik ez jasateko eskubidea⁶³. Sexu-ukigabetasuna ulertu behar da, norbanako bakoitzak bere eremu sexualen interferentziarik ez izateko duen eskubide bezala⁶⁴.

Sexu ukigabetasuna ondo ikusteko badugu 988/2016 AG-eko epaia. Bertan, sexu-ukigabetasuna pertsonaren duintasunaren adierazpena bezala definitzen da, sexualitatearen garapen egokia babestuz. Hau da, ekidin nahi da adingabeen psikismoan ezabaezinak diren aztarnak, borondatearen kontran burutzen diren esku hartze traumatikoak ekidinez⁶⁵.

⁶¹ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6^a ed, Tirant lo Blanch, 2019.

⁶² ZÁRATE CONDE, Antonio, *Derecho Penal. Parte especial: 2ª Edición. Obra adaptada al temario de oposición para el acceso a la Carrera Judicial y Fiscal*. Editorial Centro de Estudios Ramon Areces SA, Madrid, 2018. 170.orr

⁶³ LAMEIRAS FERNÁNDEZ, María y ORTS BERENGUER, Enrique. "Delitos sexuales contra menores. Abordaje psicológico, jurídico y social." *Tirant lo Blanch*, Valencia, 2014. 28.orr

⁶⁴ CARUSO FONTÁN, María Viviana, *Nuevas perspectivas sobre los delitos contra la libertad sexual*, Tirant Lo Blanch, Valencia, 2006.

⁶⁵ Espainiar Auzitegi Gorenaren sententzia, 2017ko urtarrilaren 11koa (988/2016), 4. ZO.

Hala ere, azpimarratu behar da, Zigor Kodearen VIII. Tituluaren oinarria sexu-askatasuna eta sexu-ukigabetasuna babestea bada ere, delitu konplexuak direnez bigarren maila batean beste ondasun juridikoak ere babestuta geratzen dira. Hala nola, osotasun fisikoa, pertsonaren duintasuna edo langileen eskubideak diren bezala⁶⁶.

Hortaz, ikusten dugu zigor kodeak berak modu ezberdin batean arautzen duela, sexu-ukigabetasunari lotutako delituak, hau da 16 urte baino gutxiago duten adingabeei atal berezi bat aitortzen diola. Aurreko dinamika bera jarraituz, baina atal berezi bat aitortzen dio. Hau da, argitu behar da adingabeek sexu-delituen esparruan bi talde nagusitasun bananduta daudela. Alde batetik 18-16 bitarteko adingabeek daude, sexu-askatasuna dutenak, beraz hura izango da babesten zaien ondasun juridikoa. Beste aldetik, 16 urte baino gutxiagoko adingabeek daude, sexu-askatasunaren jabe ez direnak, eta sexu-ukigabetasuna izango dela babesten zaien ondasun juridikoa. Hortaz, babes berezia eskaintzen die Kode Penalak.

Hori horrela izanik, sexu-erasoen eta -abusuen delituen barnean bi modalitate nagusi bereiztu behar dira, subjektu pasiboaren adina kontuan hartuz. Hau da, biktimak 16 urte baino gehiago dituenean, Zigor Kodearen I. eta II. Kapituluaren VIII. Tituluan arautuko dira. Aldiz, biktimak 16 urte baino gutxiago dituenean, ordea, II. Bis Kapituluaren arauturik agertuko dira. Arautzeko bereizketa hau 1/2015 LO-ren bitartez barneratu zen, zeinean baimen sexuala emateko adina 16 urteetan finkatu zen⁶⁷.

Erreforma honen barneraketa ulertzeko, Espainian baimen sexuala emateko adina izan duen eboluzioa aztertzea beharrezkoa da. Lehenik, 1822-ko ZK-n 671. Eta 672. artikuluetan abusu sexualen delituaren zigorra astundu zen, biktimak pubertaro adinera heldu ez bazen. Ondoren, 1848-eko ZK-ren 354. artikuluan adin-muga 12 urteetan finkatu zen. Azken erreforma hau ez zuen aldaketarik izan 11/1999 LO arte, zeinetan adina 13 urtera igo egin zen. Hala ere, Europar Batasuneko gainerako herrialdeekin alderatuz, adin hau baxuena zen. Izan ere, gainerako herrialdeetan 14 urteetan (Alemania, Italia, Portugal, Austria eta Hungaria). 15 urteetan (Frantzia, Polonia, Danimarka, Suedia), 16

⁶⁶ ZÁRATE CONDE, Antonio, *Derecho Penal. Parte especial: 2ª Edición. Obra adaptada al temario de oposición para el acceso a la Carrera Judicial y Fiscal*. Editorial Centro de Estudios Ramon Areces SA, Madrid, 2018.171.orr

⁶⁷ PÉREZ ALONSO, E., "Concepto de abuso sexual: contenido y límite mínimo del delito de abusos sexuales." *Indret* 3, 2019: 1-43.orr

urteetan (Erresuma Batua, Belgika, Luxenburgo, Herbehereak, Norvegia), 17 urteetan (Irlanda, Zipre) eta 18 urteetan (Malta) finkatuta zegoen⁶⁸.

Egoera honen aurrean, Nazio Batuen Umearen Eskubideen Batzordeak Espainiari gomendatu zion baimen sexuala emateko adina igotzea. Horren bitartez, adingabeari babes gehiago eskaini daiteke abusu sexualen delituen kasuan. Espainiar legegileak gomendio hau kontuan hartuz, 1/2015 Lege Organikoaren bitartez, baimen sexuala emateko adina 16 urteetan finkatu egin zuen⁶⁹.

3.3. Sexu-erasoak

Sexu-erasoak Z.K.-ren VIII. tituluaren, 1.kapitulua 178. eta 180. Artikuluaren bitartean arautzen dira. Sexu-erasoak pertsona baten sexu-askatasunaren kontrako eraso osatzen dute, biolentzia edo larderia erabiliz. Biolentzia indar fisikoa, eraso, hertsapena edo inposatze materiala bezala ulertzen da. Horren ondorioz, berekin dakar biolentziako agresio bat edo kolpe, bultzada edo urradura, hau da biktimaren borondatea gainditzeko nahikoa dena. Larderia, ordea, jatorri psikikoa dauka eta edozein motako hertsapeneko indarra, mehatxua edo beldurtzea dakar berekin, arrazoizko eta oinarritutako gaitza sortzen du. Sexu-erasoak baginatik, uzkitik edo ahotik haragitzen denean, edo lehenengo bi bideetako batetik objektuak sartuz, betiere indarkeria edo larderia erabiliz, erantzulea bortxaketaren errudun gisa zigortuko da⁷⁰.

Sexu-erasoak hurrengo elementu komunak izango dituzte: Lehenik eta behin indarkeria edo gorputzaren gaineko biolentzia fisikoa beharrezkoa izango da, edo txandaka larderia edo biolentzia psikikoaren erabilera. Hau da subjektu pasiboarengan beldurra sortzen duen gaitza. Elementu hau falta bada, egintza Z.K.-eko 181. Artikuluaren, sexu-abusuen, eta hurrengoko tipo penalaren objektu izan daiteke⁷¹.

⁶⁸ Estatuko Fiskaltza Orokorraren zirkularra 1/2017, Zigor kodearen 183. Quarter artikulua interpretazioaren ingurukoa, 2017ko ekainaren 6koa.

⁶⁹ Estatuko Fiskaltza Orokorraren zirkularra 1/2017, Zigor kodearen 183. Quarter artikulua interpretazioaren ingurukoa, 2017ko ekainaren 6koa.

⁷⁰ DE VICENTE MARTÍNEZ, Rosario, *Vademécum De Derecho Penal*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2016.

⁷¹ ZÁRATE CONDE, Antonio, *Derecho Penal. Parte especial: 2ª Edición. Obra adaptada al temario de oposición para el acceso a la Carrera Judicial y Fiscal*. Editorial Centro de Estudios Ramon Areces SA, Madrid, 2018. 172.orr

Bigarrenik, gutxienez bi pertsonen arteko gorputz kontaktua beharrezkoa da, pertsonen sexua edozein izanda ere. Modu berean sexu-erasoaren kontzeptuak eskatzen du delitugilearen jarrera lizuna izatea⁷².

Azkenik, kausa-efektu erlazioa egon behar da erabilitako biolentzia edo larderia eta gorputz kontaktuaren artean. Horretarako erabilitako biolentzia fisikoa edo psikikoa gorputz harremana lortzera bideratuta egon behar da. Hau da bere izaera eta inguruabarrengatik nahikoa izan behar da azken helburua lortzeko. Gehienetan bi biolentzia motak agertuko dira aldi berean, hori dela eta eskatzen den minimoa dagoen edo ez aztertzeko, erabilitako bi biolentzien intentsitatea baloratuko dira bere osotasunean⁷³.

3.4. Sexu-abusuak

Baimendu gabeko gorputz kontaktua dakarren edozein ekintza sexu-askatasunaren kontrako eraso da, beti ere kontaktu horren esanahia sexu izaera badu. Horren ondorioz, ZK-ren 181.artikuluaren arautzen den sexu-abusuen delituaren izaera izan behar du. (AGS 396/2018)⁷⁴. Sexu-abusuen kasuan, beste pertsonaren sexu-askatasunaren edo ukigabetasunaren kontra egiten dute, bere baliozko baimena izan barik eta biolentzia eta larderia erabili barik. Azken bi elementu horien bitartez sexu-erasoetatik desberdintzen da⁷⁵.

Lehenik eta behin, oinarrizko tipoa (181.1, 181.2 eta 181.3 art) eta tipo kualifikatuak (181.4 eta 182.2 art) bereiztu behar dira. Hau da lizun ekintzaren izaeraren arabera lehenengo edo bigarren aukeran barneratuko da , ukituak edo baginatik, uzkitik edo ahotik haragitzen denean edo lehendabiziko bi bideetatik, gorputz adarrak zein objektuak sartzean datzanean. Beraz, sexu-abusuaren barnean modalitate desberdinak daude,

⁷² *Ibíd.*

⁷³ *Ibíd.*

⁷⁴ GARCÍA SAN MARTÍN, Jerónimo, *Doctrina penal actualizada*, Tirant lo Blanch, Valencia 2018.

⁷⁵ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, Valencia, 2019. 226.orr

delituaren egileak erabiltzen duen bidearen arabera biktimaren askatasunaren aurka eginez, bilatzen duen jarrera sexuala bilatzeko⁷⁶.

Lehenik eta behin, baimenik gabe buruturiko sexu-abusuak landuko ditut, ZK-aren 181.1 eta 181.2 artikuluetan arautzen direnak. Baimenaren falta egongo da, beti ere subjektu pasiboak bere ezezkoa adierazten duenean edo ez diotenean aukerarik eman bere borondatea adierazteko⁷⁷. Zentsu horretan deigarria izan daiteke nola biktima bere zentsua galduta duenean ulertzen den sexu-abusu baten aurrean gaudela. Horretarako beharrezkoa izango da biktima desmaiatuta, konorterik gabe, anestesiatuta, lotan edo drogaren, alkoholaren edo beste substantzia kimiko zein naturalen efektuen menpe egotea. Horrek suposatzen du, subjektu pasiboak bere ahalmenak egikaritzeko aukerarik ez daukala, ezta errealitatea ulertzeko. Ondorioz, bere portaera egoera horri egokitzeko gaitasunik ez dauka⁷⁸.

Gauza bera subjektu pasiboak nahasmen mentala duenean, zeina buruko gaixotasun larri bezala ulertuko da, kalte psikikoak adimenean eta borondatearen ahalmenean eragina duenean. Horren ondorioz, pertsona ez da gai ekintza sexuala ulertzeko eta bere portaera egoera horri egokitzeko. Tipo penal honetan barneratuta egoteko bi baldintza eman behar dira: Subjektu pasiboak aurrean aipaturiko nahasmen mentala izatea eta subjektu aktiboak horren inguruko ezagutza izanda, horretaz baliatzea ekintza aurrera eramateko⁷⁹.

Bukatzeko sorpresaz erasotua izan denean edo ekintza aurkatzeko ahalmena ez duenean, nahiz eta kontzientzia egoera batean egon dago. Azken tipo penal honen barnean egongo lirateke adibidez biktimak mugikortasun murriztua duenean. Kasu horretan, biktima kontzientzia egoera batean dago, baina aurka egiteko ahalmena ez dauka⁸⁰.

⁷⁶ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, 2019. 227.orr

⁷⁷ DE VICENTE MARTÍNEZ, Rosario, *Vademécum de derecho penal*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2018. 34.orr

⁷⁸ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, 2019. 228.orr

⁷⁹ *Ibíd.*

⁸⁰ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, 2019. 230.orr

Bestetik, nagusitasun egoeraz aprobeztatuz biktimaren askatasunaren aurka eginez, bere baimena lortzen denean dago. Kasu honetan, biktimak ez du egiten egileak lortu nahi duen jarrera sexualaren kontrari, baizik eta egileak hasieratik biktimaren baimen espresua, isilbidez edo ustezkoa dauka. Hala ere, biktimaren baimen hori ez da eman askatasunez, baizik eta baimen akastuna da, askatasuna murriztuta dagoen baldintzapean eman delako. Delituaren egileak baimen hori lortu du berak biktimarekiko duen nagusitasun egoeraz eta biktimak duen mendekotasun egoeraz baliatuz. Biktimaren aldetik ez dago oposizio efektiborik, ez dago biktimaren erresistentziarik. Alde batetik, bien arteko harreman baten existentzia dago, bizitzaren edozein eremu sozialen eman daiteke, baina bien artean desberdintasun egoera bat egon behar da⁸¹.

Zigor Kodearen 182.artikulua, 18-16 bitarteko adingabeei eskainitako sexu-abusuen inguruko tipo penala da. Kasu honetan barneratuko da, konfiantzazko harreman edo autoritate posizioa erabiliz eta iruzurraren bidezko sexu-abusuak. Azken kasuaren aurrean egongo gara, subjektu aktiboak sedukzio prozesuaren bitartez biktima engainatzea lortzen duenean. Hau da, subjektu pasiboari helarazten dion egoera ez da egokitzen errealitatearekin. Benetakoa ez den ideia horren bitartez harreman sexuala burutzea lortzen du. Prozesu hori burutuko ez balitz, subjektu aktiboak ez luke lortuko harreman sexuala izatea. Tipo penal hau aplikagarria izateko kausa-efektu harreman bat egon behar da engainuaren eta harreman sexualaren artean⁸².

3.5. Sexu-abusuak eta -erasoak biktimak 16 urte baino gutxiago dituztenean

Puntu honen barnean 16 urte baino gutxiago dituzten adingabeen sexu-erasoak eta -abusuak aztertuko dira. Aurrean azaldu dudan moduan (3.2.puntuan), adingabeen kasuan 18-16 urte bitartekoak eta 16 urte baino gutxiago dituztenen artean bereizi behar dira. Lehenengo kasuarekiko helduei aplikagarri zaizkien arau berak erabiltzen dira, ordea 16 urte baino gutxiago dituzten adingabeen kasuan, zigor kodean berezko kapitulua daukate, VIII. Tituluaren II. bis kapitulua, alegia.

⁸¹ DÍEZ RIPOLLÉS, José Luis, y ROMEO CASABONA, Carlos María, "Comentarios al Código Penal español. Parte Especial (T. II): Títulos VII-XII y faltas correspondientes." Tirant lo Blanch, Valencia, 2004.

⁸² VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, Valencia, 2019. 231.orr

Horrela, eremu sexualean adingabeek zigor babes zehatza daukate. Hau da, adingabeek daukaten tratua desberdina 16 urte baino gutxiagoko sexualitatearen jardutearen debekatzean oinarritzen da. Arauketa horren atzean aurkitzen da izaera sexualeko edo sexuarekin harremanduriko zenbait jarrera pertsonalitatearen garapenean eta eboluzioan sor ditzakeen kalteak, adingabearen etorkizuneko bizitzan eta oreka psikikoan alterazioak sortuz. Beraz, adingabearen pertsonalitatearen garapen eta eboluzio normala babestu nahi da, adin nagusia denean bere jarrera sexualaren gainean erabakitzeke askatasuna izan dezan⁸³.

Tipo penal honetan, sexu-abusuak 16 urte baino gutxiagoko dituen pertsonarekin burutzen diren egintza sexualak bezala definitzen dira. Sexu-erasoak, ordea, biolentzia eta larderia erabiliz, 16 urte baino gutxiago dituen pertsonarekin burutzen diren egintzak sexualak dira⁸⁴. Horrela, Zigor Kodean ezartzen den arauketa jarraituz, hurrengo delitu motak desberdindu daitezke.

VIII. Tituluaren II. bis Kapituluaren barneratzen den lehenengo delitua 183.artikulua da. Tipo penal hau lehenik barneratu zuen 5/2010 LO-k. Arau hau sexu-abusuen multzotik banandu zen, eta adingabeen sexu-abusua bezala izatera igaro zen. 1/2015 LO-ren bitartez, tipo penal hau eraldatu zen. Horrela, jarrera tipikoa izaera sexualeko ekintzen burutzean oinarritzen da. AG-ren 424/2017 ebazpenaren arabera, 2017ko ekainaren 13koa, adierazten da hau aplikatzeko ez dela beharrezkoa adingabearen eta delitugilearen arteko kontaktu fisikoa, ezta gogo lizuna egotea. Bide beretik, adierazten da espresuki sexu-ukigabetasuna aipatu ez arren, ondasun juridiko hura babesten dela. Izan ere, 2011/93/EB zuzentaraua jarraituz adingabeen sexu-delituen erreforma burutu zen. Horren helburua zigorren larriagotzea da, beraz ezin da interpretatu erreformak lehen delitua ziren jarrerak kanpoan ustea nahi izan duela⁸⁵.

⁸³ GARCÍA ÁLVAREZ, Pastora, "La reforma de los Capítulos II bis, IV y V del Título VIII del Código penal, en el proyecto de Ley Orgánica de 20 de septiembre de 2013." *Tirant lo Blanch*, Valencia, 2015.

⁸⁴ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, Valencia, 2019. 289.orr

⁸⁵ RAMOS VÁZQUEZ, José Antonio, *Política Criminal, Cultura Y Abuso Sexual De Menores: Un Estudio Sobre Los Artículos 183 Y Sigüientes Del Código Penal*. Tirant lo Blanch, Valencia, 2016. 109.orr

183.2 artikuluan adingabeen sexu-erasoak barneratzen dira. Hau da, tipo penal hau aplikagarria izango da egitateak larderia edo indarkeria erabiliz burutzen direnean. Indarkeria tipikoa biktimak zuzenean jasaten duen kanpoko energia fisikoa bezala definitu daiteke, bere erresistentzia gaindituz, egintza sexuala pairatzera edo burutzera behartzen duena. Hau da, egintza sexuala indarkeriaren bitartez lortzen da, hala ere, ez da beharrezkoa egintza sexuala burutzen duen pertsona bera hura erabiltzea. Izan ere, hirugarren pertsonaren eskutik burutu daiteke. Biolentzia biktima gutxiagotasun egoeran jartzen duen momentutik, nahi lukeen erresistentzia jartzeko aukera izan barik, eskakizun tipikoak ematen direla ondorioztatu behar da⁸⁶.

Larderiari dagokionez, normalen erasoaren egilean jatorria dauka, baina ere posiblea da hirugarren batek, egilearekin harremana daukana edo ez, biktimaren gain larderia erabiltzea. Larderiaren kontsiderazioa izango du, subjektu aktiboak pasiboa mehatxatzen duenean etorkizunean gertatuko den kalte larria eta sinesgarriaren bitartez bere interes preziatuenetan. Horren ondorioz, biktimak bultzatuta ikusten du bere burua egintza sexualaren burutzera, kalte hori ekiditeko⁸⁷.

Aurrean aipaturiko jarrerak zigortuak izango dira goi erdiko kartzela zigorrarekin hurrengo inguruabar bat ematen denean:

a) Biktimaren garapen intelektual edo fisiko urria, edo nahasmen mental bat pairatzen duenean, biktima babesgabetasun egoeran jartzen duenean. Modu berean tipo penal hau aplikagarria izango da biktimak 4 urte baino gutxiago dituenetan. Lehenengo kasuarekiko tipo penalak eskatzen du biktima babesgabetasun osoko egoeran kokatzea, beraz ez da nahikoa nahasmen mentala pairatzearekin. Bazik eta biktima 4 urte dituen haur baten egoera analagoan egon behar da⁸⁸.

⁸⁶ SUÁREZ-MIRA RODRÍGUEZ, Carlos, *Comentarios a la reforma del Código Penal de 2015. Actualizada con la corrección de errores (BOE 11 de junio de 2015). 2ª Edición*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2015. 603.orr

⁸⁷ SUÁREZ-MIRA RODRÍGUEZ, Carlos, *Comentarios a la reforma del Código Penal de 2015. Actualizada con la corrección de errores (BOE 11 de junio de 2015). 2ª Edición*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2015. 603.orr

⁸⁸ RAMOS VÁZQUEZ, José Antonio, *Política Criminal, Cultura Y Abuso Sexual De Menores: Un Estudio Sobre Los Artículos 183 Y Sigüientes Del Código Penal*. Tirant lo Blanch, 2016. 110.orr

b) Egitateak burutzen direnean, bi pertsona edo gehiagoen parte hartzearekin. Tipo penal honekin arreta jarri nahi da adingabe batek egongo den babesgabetasun egoeran, pertsona bi edo gehiagoen sexu-erasoen eta -abusuen aurrean. Adingabearen defentsarako aukera guztiak murrizten dituelako, ahultasun egoera handiagoan kokatuz⁸⁹.

c) Erabilitako biolentzia eta larderiaren izaera batez ere apalgarria eta iraingarria denean. Beraz, tipo penal hau sexu-erasoei bakarrik aplikagarria izango da, larderia eta biolentziaren erabilera eskatzen duelako. Bestetik, izaera apalgarri eta iraingarria eskatzen da erabilitako indarkerian edo larderialan, ez jarrera sexualean⁹⁰.

d) Delituaren burutzea aurrera eramateko delitugileak nagusitasun egoeraz edo ahaidetasun harremanaz baliatu denean, aurreko ahaidea edo neba-arreba izateagatik, biologikoki edo adopzioaren ondorioz. Tipo penal honetan faltan bota da, bere ahaideekin bizi diren pertsonak barneratzea, batez ere kontuan izanda gurasoen bikotearen partetik burutzen diren delitu mota hauen intzidentzia altua dela⁹¹.

e) Errudunak biktimaren bizitza edo osasuna arriskuan jarri duenean, doloz edo zuhurtziagabekeria larriaren ondorioz. Tipo penal hau aldaketa sakona jasan zuen 1/2015 LO-ren bitartez, osasuna arriskuan jartzea barneratu zuelako, baita doloaren kalifikazio larria. Lehenengo aldaketari dagokionez, esan daiteke osotasun fisikoa arriskuan dagoenean bertan barneratzeko aukera zabaldu duela. Bestetik, indarkeriaren erabilerak adingabearen bizitzaren eta osasunaren arriskua gehiago handitzen badu ere, ulertu daiteke sexu-abusuak ere tipo penal honetan barneratu daitezkeela⁹².

f) Arau-haustea elkarte edo talde kriminalaren barnean ematen denean, aktibitate horien burutzera zuzentzen denean. Elkarte, baita talde kriminalaren arau-esparrua ZK-ren 570bis eta ter artikuluetan arautzen dira. Hala ere, bere jarduera adingabeekin baimendu gabeko sexu-delituen aktibitateak objektutzat izan behar dituzte artikulua hau aplikagarria izateko.

⁸⁹ RAMOS VÁZQUEZ, José Antonio, *Política Criminal, Cultura Y Abuso Sexual De Menores: Un Estudio Sobre Los Artículos 183 Y Sigüientes Del Código Penal*. Tirant lo Blanch, Valencia, 2016. 110.orr

⁹⁰ *Ibíd.*

⁹¹ *Ibíd.*

⁹² *Ibíd.*

Are gehiago, aurrean aipaturiko kasuetan delitugileak autoritate, agente edo funtzionario publikoaren izaeraz baliatu denean, gaitasun gabetze osoa ezarriko zaio 6 eta 12 urte bitartekoa.

16 urte baino gutxiagoko adin gabea jatorri sexuala duen jarreraren parte hartzera determinatzen denean, ZK-ren 183.bis artikuluan aplikagarria izango da. Horretan barneratuko dira 16 urte baino gutxiagoko adingabea jatorri sexuala duen jarreraren parte hartzera bultzatzen denean eta jatorri sexuala duten ekintzak ikustera behartzen diotenean, nahiz eta egileak egintza horietan parte ez hartu. Egintza horiek sexu-abusuak izango balira zigorra altuagoa izango liriteke.

Lehenik eta behin, zehaztu behar da legegileak eman nahi dion esanahia determinatu hitzarekin. Hau da, horren bidez adierazi nahi bada adingabea jatorri sexuala duten jarreretan parte hartzea erabakitzea bultzatu nahi dela, parte hartzearen markoan indukzioa duen esanahia bereganatzen du. Horrela ulertu behar da, adingabeak erabakia hartu duela biolentzia eta larderia erabili gabe. Bestetik egintzak sexu-abusuak direnean zigorra altuagoa izango dira, horren bitartez adingabearen garapen pertsonalean eta ikasketa prozesuan eragin negatiboak ekiditea bilatzen delako⁹³.

Bestetik Ziber jazarpena eta *child grooming* delitua daukagu. Zigor Kodearen 183.ter artikuluan hurrengo elementuak barneratzen dira: 16 urte baino gutxiago dituen adingabearekin harremanetan jartzea Internet, mugikorraren edo informazioa edo komunikazioaren beste bide teknologikoaren bitartez. kontaktu horretan adingabeari elkartzeko proposamena egiten zaionean 183. edo 189 artikuluetan ezarritako delituak burutzeko. Zigorrak goi erdian ezarriko dira, elkartzea intimidazio, engainu edo indarkeria dela medio burutzen denean⁹⁴.

Bukatzeko material pornografikoa eskaintzeko adingabea engainatzen denean tipo penala daukagu. Delitu honetan eroriko da, 16 urte baino gutxiago duen adingabearekin harremanetan jartzen denean Internet, mugikorraren edo komunikazioaren edo informazioaren beste bide teknologikoaren bitartez. Horrekin batera kontaktu horren helburua adingabeak material pornografikoa eskaintzea denean. Hau da, irudi

⁹³ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, 2019. 289.orr

⁹⁴ *Ibíd.*

pornografikoak erakustea bilatzen da, adingabe berak agertzen denean edo beste adingabe bat erakusten denean⁹⁵.

Kasu honetan, helduekin geratzen den bezala sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren kontrako delituak ez dira agortzen sexu-erasoetan eta sexu-abusuetan. Badira ere, aipatu dugun bezala beste zenbait portaera. Honetan, badugu adibidez, ziber jazarpena. *Child grooming* edo material pornografikoa.

Bukatzeko, 183. quarter artikuluan adierazten da, 16 urte baino gutxiago dituen adingabearen baimen askea, II bis kapituluan agertzen diren delituen erantzukizuna salbuesten duela. Baimen hori baliozko izateko beharrezkoa da hurrengo bi baldintzak betetzea: Delituaren egileak adingabearen adinera hurbiltzea eta antzeko garapen eta heldutasun maila izatea⁹⁶.

3.6. Delitu zehatzen preskripzioa biktima adingabea denean

Preskripzioaren inguruan, delitu zehatzetan biktima adingabea denean erregimen berezia daukate. Zigor Kodearen 132.1. artikulua 2. paragrafoa jarraituz, berezitasun horretaz baliatzen diren delituak hurrengoak dira: giza hilketaren saiakuntzan eta baimendu gabeko abortu delituetan, lesio, askatasunaren kontrakoak, tortura edo osotasun moralaren aurkakoak, askatasun eta sexu-ukigabetasuna, intimitatea, berezko irudirako eskubidea eta bizilekuaren bortxaezintasuna. Kasu horietan preskripzioaren epea zenbatzen hasiko da adingabeak adin nagusitasuna eskuratzen duen momentutik, eta lehenago hiltzen bada, heriotza datatik. Lanaren objektua den delituen kasuan, sexu-erasoak eta -abusuak, preskripzioa 5-15 urte bitartekoa da, delituaren larritasunaren arabera. Hori dela eta, biktima adingabea denean 23-33 urte bete arte, izango du delituaren ondorioz salaketa tarteratzeko⁹⁷.

⁹⁵ VIVES ANTÓN, T.S. y GONZÁLEZ CUSSAC, José L., *Derecho penal. Parte especial*. 6ª ed, Tirant lo Blanch, Valencia, 2019. 289.orr

⁹⁶ *Ibíd.*

⁹⁷ ÁLVAREZ GARCÍA, Francisco Javier, y GONZÁLEZ CUSSAC, Jose Luís, "Comentarios a la Reforma Penal de 2010." *Tirant lo blanch, reformas, Valencia*, 2010.

Preskripzioaren inguruko epeari dagokionez, biktima adingabea denean aurrean aipaturiko artikulua berezia daukagu. Horren arrazoi nagusia da, adingabeak bere eskubideak behar bezala defendatzea babestu nahi dela. Auzitegien aurrean adingabeak bere eskubideak defendatzeko duen ezgaitasuna dela eta. Horrela, 18 urteetan ezartzen da preskripzio epearen hasiera, adingabeak gaitasun osoa eskuratzen duen momentua delako. Bestetik, delitu horien barneraketaren arrazoia, horietan babestutako ondasun juridikoaren izaera da. Hau da, horien larritasunagatik babes berezia eskaintzen zaie delitu horietan⁹⁸.

Arau honen aurrean haurren eskubideek babesten dituzten elkarteek, baita sexua-abusuen biktimak izan diren pertsonak preskripzio epearen luzatzea eskatu egin dute. Horren aurrean, 2020ko ekainaren 9an ministro kontseiluak "Indarkeriaren aurrean Haurtzarora eta Nerabezarora babespeen osoa emateko Lege Organikoaren aurreproiektua" onartu egin du. Horren bitartez, delitu larrienen preskripzioa luzatzen da, zenbaketa hastea biktimak 30 urte dituenean ezarriz. Horrekin ekidin nahi da delitu horien inpunitatea, izan ere frogatu egin da delitu hauetan biktimak duen asimilazioa geldoa dela, detekzio berantiarra sortuz. Horrela, Lege organikoa indarrean sartuz gero, biktimak 35-45 urte bete arte izango luke delituaren salaketa tarteratzeko⁹⁹.

⁹⁸ GARCÍA, ÁLVAREZ, Francisco Javier, y GONZÁLEZ CUSSAC, José Luís, "Comentarios a La Reforma Penal De 2010." *Tirant lo blanch*, Valencia, 2010.

⁹⁹ 121/000022 Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2020ko ekainaren 19koa.

IV. ADINGABEEN SEXU-ABUSUEN ETA -ERASOEN PRESKRIPZIOA

4.1. Sarrera

Adingabeen kontrako sexu-abusuak eta -erasoak helduekiko bereziki bereizten dira, orokorrean modu errepikakorrean burutzen diren delituak direlako. Hau da, ekintza zigortzailea denboran zehar luzatzearen ondorioz, adingabea behin eta berriz biktima izatea eragiten du. Hori dela eta, adingabeak alterazio psikopatologikoak pairatzeko arriskua handitzen da¹⁰⁰.

Adingabeen sexu-abusuak eta -erasoak normalean era progresiboan burutzen dira, hasiera batean laztanekin hasten dira, ondoren ukitzeak barneratzen dira eta zenbaitetan penetrazioa ematen da. Biktimaren eta delitugilearen artean harreman bat dago; familiarra, entrenatzailea edo irakaslea izan daiteke adibidez. Horrek hain zuzen ere, baimentzen du delitua denboran zehar luzatzea, adingabearen inguruan egunero dagoen pertsona delako. Gainera, harreman horren ondorioz, heldua adingabea seduzitzeko eta beldurtzeko gai da bere borondatea bertan behera utziz, indarkeria fisikoa erabiltzeko beharrik izan barik. Hau da, delitu hauetan normalean indarkeria fisikoaren presentzia ez dagoenez, ekintza sekretupean mantentzea errazagoa da. Indarkeria fisikoa ez erabiltzearen ondorioz, hertsapen psikologikoaren beste moduak sortzen dira. Hala nola, limurtzea, beldurra, erasotzaileak erabiltzen duen boterea, sekretupean mantentzeko obligazioa edo haurrak duen babesgabetasun egoera. Gainera, adingabeak sentitzen duen errua dela eta, erabilitako hertsapena larriagotzen da¹⁰¹.

Adingabeek kasu gehienetan abusuko jarreraren inguruko ezjakintasuna daukate. Ekintza sexuala bere osotasunean ulertzeko gai ez direnez, bere burua errudun sentitzen dute. Ondorioz, manipulagarriagoak dira eta abusua sekretupean mantentzeko haiekin itunak egitea errazagoa da. Hau da, adingabeak sufritzen duen erreakzio emozionala bere inguruan kontatzeko ezintasuna sortzen dio. Hori dela eta, ohikoa da abusuaren edo

¹⁰⁰ De la Cruz, M A. "Factores predictores del impacto psicopatológico en víctimas de agresión sexual." *Madrid: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad*, Madrid, 2017.33.orr

¹⁰¹ *Ibíd.*

erasoaren salaketa aurkeztea, heldua denean eta hori kudeatzeko gaitasunak eskuratzen dituenen¹⁰².

Egoera honen aurrean, adingabeak zirenean sexu-abusuak edo -erasoak jasan dituzten biktimek, baita haurren eskubideak defendatzen dituzten GKE-k gobernuaren gain presioa burutu dute. Horren helburua izan da, Gobernuak delitu hauen preskripzio epeak luza dezan. Horrela, biktimek adingabeak zirenean jasan zituzten abusuak eta erasoak kontatzeko denbora gehiago izango dute, delitugileek kondena bete dezaten.


Eremu honetan presio gehien burutu duten elkarteek, haurren eskubideak defendatzen dituztenak izan dira. Horien artean aipagarriak dira: *Save the Children*, *Plataforma de la Infancia* eta *Infancia Robada*. Elkarte hauek aktiboki lan egin dute, haurren eta nerabeen eskubideak defendatzen dituen legea lortzeko, horren barnean delitu sexualen preskripzio epea luzatzea dagoelarik. Hau da, elkarte hauen eskaera adingabeek modu integralean babesteko Lege Organikoan oinarritzen da. Preskripzioari dagokionez, epea 40 urteetara luzatzea da euren proposamena.

Are gehiago, haurren delitu sexualen esparruan azken urteetan, batez ere alarma soziala piztu egin da, elizaren kideen partetik argitara eman diren delituen ondorioz. Izan ere, hainbat biktima salatu egin dituzte haurrak zirenean elizaren kideetatik jasandako sexu-abusuak eta -erasoak. Elizak delitu hauen estalketa burutu egin du, sekretupean mantenduz, baina orain biktimak delitu horiek kontatzeko gai izaten dira, urtetik urtera kasuen kopuru handitzen dagoelarik. Gaia duen garrantzia ikusteko, ez bakarrik arlo espezializatuetan, baizik eta orokorrean eta komunikabideetan, *El Pais* egunkariak egunero kontabilizatzen ditu Espainiako erlijioso batetik hurrek jasandako delitu posibleak. Horien artean, epaiak, kazetaritza-ikerketak eta biktimak egindako salaketa publikoak barneratzen direlarik. Beheko grafikoan ikus daitekeen bezala, 2019. urtetik hona estalgabetutako delituaren kopuruak hazkunde nabarmena izan du¹⁰³.

¹⁰² *Ibíd.* 35.orr

¹⁰³ ROMERO Jose Manuel, DOMINGUEZ Iñigo, NUÑEZ Julio eta GRASSO, Daniel, Pederastia en la iglesia española, *El Pais*, 2021ko urtarrilaren 27koa, eskuragarri <https://elpais.com/tag/c/83bc6582c5bc78d42a6dd50510fcc5fc> helbidean. . (Azken kontsulta 2021eko urtarrilaren 13an)

Gai honen inguruan *Infancia Robada* elkarte aipatzea beharrezkoa da, izan ere maila nazionalen Espainiar Elizan abusuak jasan dituzten biktimak biltzen dituen lehenengo elkarte da. Gainera, espresuki eskatu egin zuen Indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak babesteko legean erakunde erlijioso aipatzea.



1. Irudia: EL PAIS, Pederastia en la iglesia española.

4.2. Indarkeriaren aurrean Haurtzarora eta Nerabezarora osotasunean babesteko Lege Organikoaren Aurreproiektua

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko burututako presioa sozialaren ondorioz aurreproiektuaren prozesua martxan jarri zen. Orokorrean, esan daiteke nahiko kontsensu politikoa egon dela lege honen inguruan hori dela eta, 2015ko abenduan, talde politikoek bere hauteskunde programetan modu batean edo bestean bazeramaten, haurtzarora eta nerabezarora kontrako indarkeria desagerrarazteko Lege Organikoaren sorrera. Hau da, umeei babes osoa eskaini nahi zaie, neurri integralak barneratuz¹⁰⁴.

¹⁰⁴ Save the children web gune ofizialetik aterata. Informazioa gehigarria: <https://www.savethechildren.es/>

Bi urte igaro ondoren, 2018ko urtarrilean, XII legegintzaldian PP alderdiak gobernuan egonik, legearen elaborazioa burutzeko lan teknikoak hasten dira Haurtzaroaren zuzendaritza nagusiarekin, Osasun Ministeritzaren zuzendaritzapean. Urte beraren irailean, Ministroen Kontseiluan Osasun ministrak, Maria Luisa Carcedo-k, adierazten du bere ministerioak adingabeek indarkeriaren aurrean babesteko legea lantzen ari duela. Horrekin batera legearen edukiaren inguruko aurkibidea aurkezten du. Hortik aurrera, aurretiko kontsulta fasea hasten da, zeinean herritarrok ministerioari legearen inguruko edukia proposatu dezakegu. Kasu honetan nahiko ekarpen izan zituen administrazioen, haurtzaroan espezializatutako erakundeen eta sozietatearen aldetik, beste legeekin alderatuz. Ondoren, urrian zehazki, Barne Ministroak publikoki konpromisua hartzen du legearen aurreproiektua urte horren ministroen azken kontseiluan onartzeko. Jarraian, abenduan, ministroen kontseiluak legearen aurreproiektua onartzen du, baina ez da premiazko bidetik izapidetzeko kalifikaziorik egiten, nahiz eta hori izan elkarte gehienen eskaera. Hau da adingabeen eskubideak defendatzen dituzten elkarteek adierazi zuten, beharrezkoa zela premiazko bidetik izapidetzea legearen objektuaren garrantzia zela eta, ahalik eta lasterren indarrean sartzeko¹⁰⁵.

2019ko urtarrilean, Entzunaldi eta informazio publikoa hasten da. Modu berean, osasun, kontsumo eta gizarte-ongizatearen ministerioak, baita justizia ministerioak eta barne ministerioak txostenak egiten hasten dituzte. Baita, Botere judizialaren Kontseilu Orokorrak bere txostenak lantzen ditu, gobernuak Aurreproiektuaren onartzea aurrera eramateko beharrezkoa dena.

Hilabete beraren 15ean, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan Osasun, kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministeriotik eratorritako idatzia barneratu zen. Horren bidez eskatzen da, EGK-ak haurtzaroa eta nerabezaroa osoki babesteko LO-aren aurreproiektuaren inguruko irizpena eman zezan. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 20ko ohiko bilkuran, irizpen hau onartu zuen, horretan hurrengo arrazoiak barneratzen direlarik¹⁰⁶.

¹⁰⁵ *Ibíd.*

¹⁰⁶ Dictamen del Pleno del Consejo Económico y Social Sobre el Anteproyecto de Ley Orgánica de Protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2019ko otsailaren 20an onartutako.

Irizpen honetan argi geratzen zaigu zein iturri juridikotan oinarritzen den, konstituziotik hasita baita Europako kontseiluko eta parlamentuko oinarriak hartuta. Hori dela eta, Lege Organikoa onartuz gero, nazioartean berritzaileak izango ginateke, indarkeriaren aurrean adingabeek babestea duen garrantzia aitortzen baitzaio. Konstituzio Espainiarraren 39.artikulua jarraituz, botere publikoei dagokie familiaren eta haurtzaroaren babesa. Horren lehenengo atalaren arabera botere publikoek familiaren babes ekonomiko, juridikoa eta soziala bermatu behar dute. Artikulu beraren 2. atalean adierazten da botere publikoek seme-alaben babes osoa eskainiko dutela. Horrela, umeei nazioarteko hitzarmenetan barneratzen den babesaz baliatzeko eskubidea dute. Marko horretan Haurren Eskubideen konbentzioa aipatu dezaket, Nazio Batuen Biltzarrak 1989ko azaroaren 20an onartutakoa, eta Espainiak 1990eko abenduaren 6an berretsitakoa. Konbentzioan ezartzen da, nazioarteko itun gisa, hitzarmenaren parte diren estatuei dagokiela itunean barneratzen diren eskubideak eta askatasunak umeei bermatzea. Horien artean hurrengoak aurkitzen dira: hezkuntzarako eta osasun-zerbitzurako sarbidea; gaitasun fisiko, psikikoa, sozial eta moralak osoki gara ditzaketela; zoriontasun-, babes-, ongizate- eta ulermen-ingurune batean hazten direla ziurtatzea; aisialdiaz, kulturaz, arteez eta kirolaz gozatzen dutela. Beraz, Umearen eskubideen konbentzioak gaur egun haurren eta nerabeen defentsaren marko unibertsala ezartzen du¹⁰⁷.

Bestetik aipatu behar da Europako kontseiluak martxan jarritako hurrengo proiektua: Europako kontseiluaren Estrategia Umearen eskubideetarako 2016-2021. Honen bitartez, ume guztien eskubideak bermatu nahi dira eremu desberdinetan. Horietan ditugu: aukeren eta parte-hartzeko berdintasuna, indarkeria gabeko bizitza izateko eskubidea, justizia berdintasuna eta eremu digitalean eskubideak bermatzeko¹⁰⁸.

Modu berean, aipatzekoa da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/92/EB Zuzentarauak, adingabeen sexu-abusuen eta sexu-esplotazioaren aurkako borrokari eta haur-pornografiari buruzkoak¹⁰⁹.

¹⁰⁷ Dictamen del Pleno del Consejo Económico y Social Sobre el Anteproyecto de Ley Orgánica de Protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2019ko otsailaren 20an onartutako.

¹⁰⁸ *Ibíd.*

¹⁰⁹ *Ibíd.*

Bukatzeko Aurreproiektuaren edukiaren inguruan adierazten da, 13.atalean preskripzioaren epea luzatu dela delitu larrienen kasuan, biktima adingabea denean. Modu honetan, epea zenbatzen hasiko da biktimak 30 urte betetzen dituenean. Are gehiago, harreman familiarren, ohiko tratu txarren eta sexu-askatasunaren eta - ukigabetasunaren kontrako delitu berriak barneratzen dira ZK-ren 132.1. artikuluan¹¹⁰.

Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena interesgarria bada, aztertuko beharko dugu ere 2019ko maiatzaren 30ean Botere Judizialaren Kontseilua Orokorrak egindako txostena. Horren bidez, Batzarrak adostasun osoz aurreproiektuaren aldeko txostena onartu zuen. Kasu honetan ere, nazioarteko konpromisuak aipatzen ditu, izan ere adierazten du Lege organikoaren helburua dela ordenamendu juridikoan barneratzea Espainiak hartutako konpromisuak hurrengo delituei aurre egiteko: ziber delinkuentzia (Budapest-ren hitzarmena, 2001), gizakien salerosketa (Varsoviako hitzarmena, 2005), esplotazioa eta sexu-abusuak (Lanzaroteko Hitzarmena, 2007) eta emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko-indarkeria (Istanbulko Hitzarmena, 2011). Beraz, helburu nagusia haurrak eta nerabeak botere publikoen politiken erdigunean jartzea da¹¹¹.

Gure gaiari dagokionez, adierazten du 132.artikuluaren eraldaketaren arrazoia inpunitate hutsuneak ekiditea direla, estatistikoki asimilazio geldoko delituak direla frogatu delako eta askotan detekzio berantiarrekoak. Horrekin 2011/93/EB zuzentarauaren 15.2 artikularen transposizioa egiten da. Bertan agintzen da, adingabeen sexu-abusuen, pornografiaren eta sexu esplotazioaren esparruan , estatu kideek neurriak hartu behar dituztela delitu hauek biktimak adin nagusitasuna eskuratu duenetik epe nahiko izan dezan delitu hauek salatzeke. Modu berean, adierazten du epe hori beste delitu larriei luzatzearen alde dagoela. Beraz, ondorioztatzen da BJKO adingabeen kontrako burututako delitu sexualen preskripzioaren zenbaketaren alde agertzen dela. Hau da, honen abala dauka preskripzioaren zenbaketa biktimak 30 urte dituenean hasteko¹¹².

¹¹⁰ Ibíd.

¹¹¹ Poder Judicial España, nota de prensa, 2019ko maiatzaren 30koa, eskuragarri <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Sala-de-Prensa/Notas-de-prensa/EI-CGPI-avala-que-el-computo-de-la-prescripcion-de-delitos-sexuales-cometidos-contra-menores-empiece-a-contar-cuando-la-victima-cumpla-30-anos-> helbidean.

¹¹² Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak, Informe sobre el Anteproyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia. 2019ko maiatzaren 30koa.

Dokumentu guzti hauek lortu baziren ere, 2019ko apirilean etenaldi bat egon zen. Hau da, aurreko txostenak landu ziren, baina lege hau ez zen joan espero zen bezain azkar, horren arrazoiak hurrengoak izan ziren. Lehenik eta behin hauteskundearen aurreratzeak prozesua geldiarazten du. Ondoren, azaroan hauteskundeak errepikatu behar izan ziren, gobernatzeko beharrezkoa zen gehiengoa talde politikoek lortu ez zutelako. 2020ko urtarrilaren 13an gobernu osoa osatu zen, beraz ordura arte aurreproiektua onartzeko prozesua geldiarazi zen. Helburua aurreproiektua martxoan onartzea zen, hala ere COVID-19 sortutako alarma egoera berriro ere prozesua geldiarazi zuen¹¹³.

Horrela, *Plataforma de la infancia* eta *Save the children* bezalako erakundeek adierazi egin zuten, talde politiko arteko adostasuna beharrezkoa zela Gorte Nagusietan premiazko bidearen bitartez izapidetu daitezten, indarrean ahalik eta lasterren sartzeko. Erakundeek adierazi egin dute arauen aldakuntza barneratu behar dela izapide parlamentarioa burutzen den bitartean, zuzenketen fasean. Gainera, lehentasuna eman diote aldaketa horietako bat izan behar dela delitu sexualen preskripzio epearen luzatzea¹¹⁴.

Aipatutako prozesu luzeraren ondorioz, 2020ko ekainaren 9an Ministroen Kontseiluak Indarkeriaren aurrean Haurtzarora eta Nerabezarora osoki babesteko Proiektuaren Lege Organikoa Gorte Nagusiei igortzea onartu egin zuen. Akordio honen bitartez Lege Organikoaren izapide parlamentarioa eskatzen da premiazko prozeduraren bitartez.

Haurren Eskubideen Batzordea, Nazio Batuen Erakundearen parte dena, 2018. urtean Espainian haurtzarora eskubideen egoera aztertu ondoren, adierazi egin zuen beharrezkoa zela umeak indarkeriaren aurrean babesteko lege integralaren onartzea,

¹¹³ Gobernu berriaren eratzerekin batera, Pablo Iglesias bigarren presidenteorde eta giza eskubideen eta 2030-eko agendaren ministro gisa, aurreproiektu hau Rhodes legea bezala izendatu zuen. Izan ere, James Rhodes pianista britaniarra famatua izateaz gain, komunikabideetan ezaguna izan da, haurtzarora jasan zituen sexu-abusuen inguruan idatzitako liburu autobiografikoagatik. Are gehiago, Vicki Bernadet Fundazioarekin batera lan egin du aurreproiektuaren onarperna eskatzeko.

¹¹⁴ SOSA TROYA, María. Organizaciones de infancia piden que el plazo de prescripción de abusos a menores comience cuando la víctima tenga 40, *El País*, 2020ko ekainaren 8koa, eskuragarri <https://elpais.com/sociedad/2020-06-08/organizaciones-de-infancia-piden-que-el-plazo-de-prescripcion-de-abusos-a-menores-comience-cuando-la-victima-tenga-40.html> helbidean. . (Azken kontsulta 2021eko urtarrilaren 14an)

genero-indarkeriaren aurka onartutakoaren maila berekoa. Hein handi batean, Lege Organikoaren aurreproiektu honek behar honi erantzuteko sortu egin da¹¹⁵.

Aurreproiektu honek preskripzioaren esparruan, ZK-ren 132.1. artikulua aldaketa barneratzen du. Horren ondorioz, hurrengo moduan idatzita geratuko litzateke¹¹⁶:

“ 1. Aurreko artikuluan ezarritako epeak zenbatuko dira zigorgarri den arau-haustea egin den egunetik. Delitu jarraituaren, delitu iraunkorren eta ohikotasuna eskatzen duten arau-hausteen kasuetan, termino horiek zenbatuko dira, hurrenez hurren, azken arau-haustea egin zen egunetik, legez kontrako egoera ezabatu zenetik edo jokabidea amaitu zenetik.

Baimendu gabeko abortuaren, lesioen, askatasunaren, torturen eta osotasun moralaren aurkako delituetan, intimitatearen, norberaren irudirako eskubidearen eta bizileku bortxaezintasunaren aurkako delituetan, gorroto-delituetan eta familia-harremanen aurkako delituetan, hurrengo lerrokadan jasotako delituak alde batera utzita, biktima hamazortzi urtetik beherako pertsona denean, biktima adin-nagusitasunera iritsi den egunetik aurrera zenbatuko dira epeak, eta heriotza datatik lehenago hiltzen bada.

Giza hilketaren saiakuntza delituetan, 149. Eta 150. Artikuluetako lesioen delituetan, 173.2. artikuluan aurreikusitako ohiko tratu txarren delituetan, askatasunaren aurkako delituetan, sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituetan eta gizakien salerosketaren delituetan, biktima hamazortzi urtetik beherako pertsona bat denean, epeak zenbatuko dira biktimak hogeita hamar urte betetzen dituenetik, edo adin horretara heltzen ez bada hiltzen den momentutik.”

Beraz, azken paragrafo honetan aipatzen diren delitu larrien kasuan, biktima adingabea denean, epea zenbatzen hasten den eguna aldatzen da. Hau da preskripzioa epea zenbatzen hasiko da biktimak 30 urte betetzen dituen momentutik.

¹¹⁵ 121/000022 Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2020ko ekainaren 19koa.

¹¹⁶ *Ibíd.*

Hala ere, kontuan izan behar dugu lege honek ez duela bakarrik eragina zigor kodean, hau da helburua ez da bakarrik zigortzailea. Horrela ikus daiteke, nola lan handia egiten den beste arloetan: sentsibilizazioa, prebentzioa, laguntza familiarra, zerbitzu sozialak, osasuna, justizia, hezkuntza eremuan...Beraz, esan daiteke eragina duela ministerio desberdinetan, horrela koordinazioa funtsezkoa izango da¹¹⁷.

Alde batetik sentsibilizazio eta detekzio goiztiarreko plan eta programa publikoak martxan jartzen dira, haurren eta nerabeen kontrako indarkeria desagerrarazteko. Helburu hori aurrera eramateko, administrazio publikoek formakuntza espezializatua eskainiko dizkie haurrekin eta nerabeekin harreman zuzena duten profesionaleri. Ildo beretik, adingabeekin, kirol edo aisialdiarekin harremana duten ekintzak burutzen dituzten erakundeetan babes ordezkariaren figura sortzen da. Horren helburua izango da umeei eta nerabeei beharrezkoa den laguntza eta informazioa eskaintzea, indarkeriaren eremuan. Gainera, Segurtasun Indar eta Kidegoak, adingabeen aurkako indarkeriaren sentsibilizazioan eta prebentzian espezializatutako unitateak izatea ezartzen da. Eginbideak murrizten dira, hau da behar beharrezkoak direnean bakarrik aurrera eramango dira, adingabeak parte hartzen badu¹¹⁸.

Bestetik, Hezkuntza Legearen erreformarekin batera, ikasketa zentroetan babes eta ongizatearen koordinatzailearen figura sortzen da. Horrela bere funtzioak finkatzen dira, eskola-jazarpena, ziber jazarpena, sexu-jazarpenaren, genero-indarkeriaren eta beste edozein indarkeria motaren zantzuak identifikatzeko¹¹⁹.

Eremu familiarrean, delitugilearen ezkontideari eta ahaide hurbilei salaketa tarteratzeko betebeharra ezartzen da, delitu larri bat denean eta biktima adingabea denean. Horrela, edonork eskuduna den autoritateari jakinarazi beharko dio umeen edo nerabeen edozein indarkeria motaren berri duenean. Nahiz eta indarkeria hura delituaren objektua ez izan, komunikatzeko betebeharra mantentzen da. Gainera legearen aurreko betebeharrak hau

¹¹⁷ Espainiar Gobernua, nota informativa, 2020ko ekainaren 9an onartutako, eskuragarri https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/Paginas/enlaces/090620-enlace_infancia.aspx helbidean.

¹¹⁸ *Ibíd.*

¹¹⁹ *Ibíd.*

indartzen da adingabeekin ohiko harremana daukaten profesionalak direnean, indarkeriaren berri daukatena¹²⁰.

Bukatzeko justiziaren esparruan, indarkeriaren biktimak izan diren haurren eta nerabeen kasuan prozedura judizialean bertaratzeko eskubidea bermatu nahi zaie, behar duten laguntza, aholkularitza eta informazio guztia eskainiz. Modu berean, Borondatezko jurisdikzioaren inguruko 15/2015 legea eraldatzen da. Horrela, haurren eta nerabeen entzunak izateko eskubide barneratzen da; defentsarako, askatasunez hitz egiteko eta bere intimitate-eskubidea bermatzeko. Bestetik, organo instruktoreak aurrez eraturako froga burutzeko betebeharra izango du, biktima 14 urte baino gutxiago dituen edo babes berezia duen desgaitasuna duenean. Horrela ekidin nahi da zigor prozeduraren zehar biktimak berriro deklaratzeko. Gainera, adingabeen eta desgaituen doako laguntza juridikoa aintzatetsi egiten da, delitu larrien biktima baldin bada, bere egoera ekonomikoa edozein izanda ere¹²¹.

2020ko ekainaren 19an Diputatuen Kongresuen mahaia aurreproiektua hartu zuen. Modu berean, erabaki zuen premiazko bidearen bitartez irizpena agintzea Giza eskubideen eta desgaitasunaren politika integralen batzordeari. Bertan adierazten da, delitu larrienen preskripzioa luzatzen dela, biktima adingabea denean, preskripzioa biktimak 30 urte bete arte zenbatzen hasiko ez delarik. Horren arrazoia gisa, adierazten da delitu horien inpunitatea ekidin nahi dela, izan ere asimilazioa geldoko delituak dira eremu psikologikoan eta askotan detekzio berantiarra dakarte¹²².

Bukatzeko 2020 azaroaren 5en Gorte Nagusien Boletin Ofizialean aurreproiektuaren inguruko zuzenketak publikatu ziren. Lanaren gaiari dagokionez, hau da preskripzioari dagokionez hurrengo zuzenketak proposatzen dira: zenbait talde politiko (Ciudadanos, errepublikarrak, PP) eta diputatu (Joan Baldovi eta Iñigo Errejon), preskripzio epea 40 urteetara luzatzea proposatzen dute. Alde batetik, zuzenketa hura justifikatzeko adierazten da epe berri hau biktimen errealitatekin hobeto egokitzen dela eta inpunitatearen eta biktimen justiziara heltzeko eskubide errespetatzea baimentzen duela. Nahiz eta oinarri ideologiko desberdina duten alderdiak izan, denek erabaki dute arlo

¹²⁰ *Ibíd.*

¹²¹ *Ibíd.*

¹²² 121/000022 Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2020ko ekainaren 19koa.

honetan ados egotea. Horrek adierazten du zer nolako kontsentsua dagoen aurreproiektu honen inguruan. Gainera, aipatu behar da, talde politikoek euren egin dutela erakundeen eta biktimen eskaera. Izan ere jarraian azalduko dudan moduan, erakundeek eta biktimek ez daude guztiz ados erreforma honekin, epea ez dela nahiko uste dutelako¹²³.

4.3. Erreformaren aurreko erantzun soziala

Elkarteek eta biktimek aurreproiektuaren onartzea ospatu badute ere aurrerapauso bat delako, ez dira erreformaren guztiz alde agertzen. Izan ere, preskripzioaren epea 40 urteetara luzatzea eskatu dute, baita badaude delitu hauek preskribaezinak egitearen alde agertzen direnak.

Lehenengo posizionamenduari dagokionez, erakundeen izenean Vicki Bernadet¹²⁴ Fundazioak adierazi egin du ezagutaraztera eramaten duten gehiengoaren epea 35 urtetik 50 urtera doala. Hau da, biktimak gertatutakoaren kontzientzia hartzen duenetik eta kontatzeko edo salatzeke prest dagoenean batez beste 35-50 urte bitartean behar ditu. Horren ondorioz, gobernuak proposatzen duen epea oraindik ere ez da nahikoa. Izan ere, delitu hauen preskripzioa 5-15 urte bitartekoa dela kontuan harturik, erreforma berriarekin gehienez biktimak 45 urte dituenean preskribatuko dira. Horrek esan nahi du, oraindik ere epaitu gabeko kasuak preskribatuko direla. Gainerako elkarteek : *Save the Children*, *la Plataforma de la Infancia* eta *Infancia Robada*¹²⁵ horren alde agertu dira¹²⁶.

¹²³ Enmiendas e índice de enmiendas al articulado, 121/000022 Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2020ko azaroaren 5koa.

¹²⁴ Vicki Bernadet Fundazioaren burua da, Plataforma de la Infancia delakoaren parte dena. Bere jardura eremu familiarrean eta haurren konfiantza eremuan gertatzen diren sexu-abusuen sentsibilizazioan eta prebentzioan oinarritzen da.

¹²⁵ Espainiar eremuan Eliza Katolikoaren barnean abusua jasan dituzten biktimak biltzen dituen lehenengo elkarte da. Erreformaren aurrean, bere desadostasuna adierazi egin du, bertan eliza katolikoaren instituzioa espresuki ez aipatzeagatik.

¹²⁶ SOSA TROYA, María. Organizaciones de infancia piden que el plazo de prescripción de abusos a menores comience cuando la víctima tenga 40, *El País*, 2020ko ekainaren 8koa, eskuragarri <https://elpais.com/sociedad/2020-06-08/organizaciones-de-infancia-piden-que-el-plazo-de-prescripcion-de-abusos-a-menores-comience-cuando-la-victima-tenga-40.html> helbidean. (Azken kontsulta 2021eko urtarrilaren 14an)

Elkarteez gain, biktimak modu indibidualean bere eskaera edo iritzia egin dute. Horren adibidea da *El Correo* egunkarian, bere iritzia eman duen biktimak, adieraziz preskribaezinak izan beharko liratekeela. Biktima honen ustetan erreformaren bitartez bermatutako preskripzio epea ez da nahikoa, izan ere hain traumatikoa den esperientzia digeritzeko zenbaitetan bizitza oso bat beharrezkoa da. Beraz, pausua ematera prest daudenean bidea zabalik izan beharko lukete auzitegiara jotzeko. Horren ondorioz, bere ustetan delitu hauek preskribaezinak izan beharko lukete¹²⁷.

Aurrekoa ikusita esango nuke, gaur egun indarrean dagoen araudia aldatzea beharrezkoa dela, sexu-erasoen eta -abusuen kasuan, biktima adingabea denean. Alde batetik, ikusi dudatan moduan, asimilazio geldoko delituak dira, batez ere arrazoi nagusia da adingabeak ekintza sexuala bere osotasunean ulertzeko gai ez direla eta delitu mota hauek biltzen dituen sekretismoa, delitugilearen eta biktimaren artean dagoen botere-harremana dela eta.

Horren ondorioz, lehenik eta behin biktimak haurra zenean jasan zuena gainditzeko laguntza behar du, bere inguruan kontatzeko gai direnean denbora pasa dela. Hala ere, esango nuke delitu hauek gertatu direnetik kontatzeko prest egon arte, hainbat denbora igarotzen dela biktimaren eta delitugilearen artean dagoen sekretismoagatik. Beraz, delitu hauen preskripzioa luzatzeaz gain, beste baliabideak martxan jartzea beharrezkoa da, biktimak salatzeke prest lehenago egon dezan. Horretarako aurreproiektuaren bitartez barneratu nahi diren arau berriak oso garrantzitsuak dira. Hau da, adingabeekin egunero harremana daukaten pertsonak gai izan beharko lirateke sexu-erasoen edo -abusuen presentzia hautemateko. Hori dela aurreproiektua onartuz gero, profesional hauei eskainiko zaien prestakuntza ezinbestekoa da. Modu berean, delitugilearen ezkontideak eta ahaideak salatzeke betebeharra aurrerapauso bat da, izan ere delitu mota hau askotan eremu familiarretan ematen dira.

¹²⁷ GARCIA, Sergio, Los jueces piden que el abuso sexual a menores no prescriba hasta que la víctima tenga 45 años, *El Correo*, 2019ko maitzaren 31eko albistea, eskuragarri <https://www.elcorreo.com/sociedad/jueces-proponen-delitos-20190531112432-nt.html?ref=https:%2F%2Fwww.elcorreo.com%2Fsociedad%2Fjueces-proponen-delitos-20190531112432-nt.html> helbidean. (Azken kontsulta 13an)

Bestetik, frogatuta dagoen bezala, gehienetan delitugilea adingabeekin egunero harreman zuzena daukan pertsona da, aisialdiarekin edo kirolarekin harremana daukaten klaseak eskaintzen dituzten pertsonak edo irakasleak direlarik. Beraz, preskripzioaren oinarritako bati erreparatuz ez da betetzen, hau da zigorra ezartzeko beharraren desagarpena, denboraren igarotzeak delitua burutu zenean sortutako alarma soziala desagertzea suposatzen duelarik. Esan daiteke, kasu honetan behar hori ez dela desagertu, pertsona horiek bere profesioa garatzen jarraitzen badute zigortuak izan barik, sozietatearentzat arrisku bat suposatzen jarraitzen dutelako.

Hala ere, aipatu beharra dago delitu hauen preskripzio epea luzatzearen eskaera bera, baita preskribaezinak bihurtzeko egiten den eskaera, nolabait kolokan jartzen duela preskripzioaren figura juridikoa. Hau da, preskripzioaren erabilera edo oinarriaren eraginkortasuna kuestionatzen ari da. Kasu honetan sexu-abusuen eta -erasoen preskripzioaren luzatzea aztertu bada ere, beste delitu larrietara uste berdina zabaltzen ari da. Izan ere, azken urteetan delituaren preskripzioa luzatzeko joera dago. Beraz, posiblea izango litzateke aurreproiektu honen onarpenarekin batera, beste delitua larrien preskripzio luzatzea eta preskribaezinak bihurtzeko eskaera ematea. Hau da, delitu preskribaezinen barnean tipo penal berriak barneratzea, adibidez erailketaren kasua, jada Alemanian eta Austrian gertatzen den bezala.

V. ONDORIOAK

- I. Preskripzioaren figura juridikoa eztabaidatua izan da bere bilakaera historikoan zehar. Eztabaida nagusiak preskripzioaren oinarri juridikoari dagokionez izan dira, gaur egun oraindik ere posizio argirik ez dagoelarik eta *dies a quo* delakoaren inguruan. Ikusi dugun moduan, historian zehar momentu ezberdinak ezarri dira, gaur egun delitu egiten den momentua indarrean dagoelarik.
- II. Dena den preskripzioak badu ere salbuespena, horretan preskribaezintasuna dago. Zenbait delituen larritasunaren ondorioz, gizartean duen esanahia ezin da ahaztu denbora igaro ahala. Beste ikuspuntu batetik, kontzientzia txar baten ondorioa izan daiteke, delitu horiek prebenitzeko neurriak ez hartzegatik.
- III. Preskripzioaren garrantzi berezia da delitu sexualetan, biktima adingabea denean. Horren kausa delitu hauek biltzen dituen sekretismoa da, delitugilearen eta adingabearen artean dagoen botere harremanean, baita adingabeak ekintza sexuala osotasunean ulertzeko duen zailtasunean oinarriturik. Horrela, ulertzen da adingabeak salaketa tarteratzeko zailtasunak dituela, hau da auzitegien aurrean bere eskubideak behar bezala defendatzeko gaitasuna eza azpimarratu behar da.
- IV. 16 urtetik behera babes berezia eskaintzen zaie adingabeei sexu-delituen eremuan, pertsonalitatearen garapenean eta eboluzio normalean arazo larriak sortzen dituztelako. Kasu honetan, babesten den ondasun juridikoa sexu-ukigabetasuna izango da, jatorri sexuala duen jarreraren parte hartzea erabakitzeke gai ez direnez, aipatutako arazoak ekiditeko eskubidea babesten da. Gainera, delitu hauen intzidentzia kezagarria da populazioaren %10-%20 sexu-abusuak edo -erasoak haurtzaroan jasan egin ditu.
- V. Sexu-erasoen eta -abusuen kasuan babesten diren ondasun juridikoak sexu-ukigabetasun eta -askatasuna dira. Sexu-erasoak abusetatik desberdintzen direlarik larderia eta indarkeria erabiltzen direlako.

- VI. Gaur egungo delitu larrien preskripzio etetea biktima adingabea denean ez da nahikoa, 132.1 artikulua araberan 18 urteak betetzean zenbatzen hasiko delarik. Izan ere, heldutasun maila bat eskuratzea beharrezkoa da, baita garatze pertsonala eta hausnarketa prozesua, autoritatearen aurrean gertatutako salatze prest egoteko.
- VII. 2020ko ekainaren 9an ministroen kontseiluak Indarkeriaren aurrean Haurtzaroa eta Nerabezaroa osoki babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen. Horretarako, pisuzkoa izan zen biktimek eta haurren eskubideak defendatzen dituzten eskubideen elkarteak egindako presioa. Aurreproiektu honetan proposatzen diren aldaketatik adierazgarriena da nola eskatzen den preskripzio epea luzatzea, biktimak 30 urte betetzen dituenean kokatuz.
- VIII. Dena den aurreproiektu horrekin kontsensu handia badago ere, eta aurrerapauso bat bezala ikusi bada ere, oraindik bada luzatzea eskatzen dutenak. Alde batetik, 2020 azaroaren 5en aurreproiektuaren inguruko zuzenketak publikatu ziren dokumentuan zenbait talde politiko preskripzio epea 40 urteetara luzatzea proposatzen dute. Modu berean, elkarteek eta biktimek preskripzioaren epea 40 urteetara luzatzea eskatu dute. Izan ere, sexu-abusuen eta -erasoen salatzaileen batez bestekoa 35-50 urte bitartean kokatzen dira.
- IX. Adierazi daiteke nolabait preskripzioa luzatzeko egiten ari diren eskaera hauekin batera, baita aurreproiektuaren onarpenarekin preskripzioaren figura juridikoaren kontrari egiten ari dela. Hau da, nolabait zalantzan jartzen ari da preskripzioaren erabileraren eta oinarriaren eraginkortasuna. Izan ere, hori argi egongo balitz ez litzateke beharrezkoa izango delituen preskripzioen epea luzatzea.

BIBLIOGRAFIA

- ASUA BATARRITA, Adela, "Las agresiones sexuales en el nuevo Código Penal: Imágenes culturales y discurso jurídico", *Emakunde-instituto Vasco de la Mujer*, Vitoria, 1998.
- BERNALES ROJAS, Gerardo, "La Imprescriptibilidad De La Acción Penal En Procesos Por Violaciones a Los Derechos Humanos.", *Ius et Praxis* 13.1, 2007.
- CARDENAL MONTRAVETA, Sergi, *La Prescripción De La Pena Tras La Reforma Del Código Penal De 2015*. Tirant lo Blanch, Valencia, 2015.
- CARUSO FONTÁN, María, *Nuevas Perspectivas Sobre Los Delitos Contra La Libertad Sexual*, Tirant Lo Blanch, Valencia, 2006.
- DE LA CRUZ, M A. "Factores predictores del impacto psicopatológico en víctimas de agresión sexual." *Madrid: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad* , Madrid, 2017.
- DE VICENTE MARTÍNEZ, Rosario, *Vademécum De Derecho Penal*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2018.
- DE VICENTE MARTÍNEZ, Rosario, *Vademécum De Derecho Penal*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2016.
- DÍEZ RIPOLLES, José Luis, y ROMEO CASABONA, Carlos María. "Comentarios Al Código Penal Español. Parte Especial (T. II): Títulos VII-XII Y Faltas Correspondientes." *Tirant lo Blanch*, Valencia, 2004.
- GARCÍA ÁLVAREZ, Pastora. "La Reforma De Los Capítulos II Bis, IV Y V Del Título VIII Del Código Penal, En El Proyecto De Ley Orgánica De 20 De Septiembre De 2013." *Tirant lo Blanch*, Valencia, 2015.
- GARCÍA GARCÍA-SOTOCA, Francisco Javier, "La Prescripción Del Delito." *Revista Jurídica de Canarias*, Canarias, 2011.
- GARCÍA SAN MARTÍN, Jerónimo, *Doctrina Penal Actualizada*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2018.

- GARCÍA, ÁLVAREZ, Francisco Javier, y GONZÁLEZ CUSSAC, José Luís, "Comentarios a La Reforma Penal De 2010." *Tirant lo blanch, reformas*, Valencia, 2010.
- GONZÁLEZ TAPIA, Ma Isabel, *La Prescripción En El Derecho Penal*, Dykinson, Madrid, 2003.
- LAMEIRAS FERNÁNDEZ, María, y ORTS BERENGUER, Enrique. "Delitos Sexuales Contra Menores. Abordaje Psicológico, Jurídico Y Social." *Tirant lo Blanch*, Valencia, 2014.
- LASCURAÍN SÁNCHEZ, Juan Antonio, *Introducción Al Derecho Penal*, Civitas, Madrid, 2015.
- MARTÍNEZ PARDO, Vicente José. "La Prescripción Del Delito." *Revista internauta de práctica jurídica*.27, Valencia, 2011.
- MIR PUIG, Santiago, GÓMEZ MARTÍN Víctor, y VALIENTE IVAÑEZ Vicente. *Derecho Penal. Parte General*, Reppertor, Barcelona, 2016.
- MOLINA FERNÁNDEZ, Fernando. "Memento Práctico Francis Lefebvre. Penal 2011." Ediciones Francis Lefebvre, Madrid, 2011
- MONTERO HERNANZ, Tomás y DE VICENTE MARTINEZ, Rosario, *Justicia Juvenil*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2016.
- PEREDA BELTRAN, Noemí y GÓMEZ MARTÍN, Victor. "La prescripción de delitos sexuales con niños víctimas: un análisis multidisciplinar." Centre de'Estudis Jurídics y Formació Especializada, Catalunya, 2018.
- PÉREZ ALONSO, E. "Concepto De Abuso Sexual: Contenido Y Límite Mínimo Del Delito De Abusos Sexuales." *Indret* 3, 2019
- RAMOS VÁZQUEZ, José Antonio, *Política Criminal, Cultura Y Abuso Sexual De Menores: Un Estudio Sobre Los Artículos 183 Y Siguietes Del Código Penal*. Tirant lo Blanch, Valencia, 2016.
- SILVA, Jesús María, *El Nuevo Código Penal : Comentarios a La Reforma*, La Ley, Madrid, 2012.
- SUÁREZ-MIRA RODRÍGUEZ, Carlos, *Comentarios a la reforma del Código Penal de 2015. Actualizada con la corrección de errores (BOE 11 de junio de 2015)*. 2ª Edición, Tirant lo Blanch, Valencia, 2015.
- VÁZQUEZ IRUZUBIETA, Carlos, *Comentario Al Código Penal: Actualizado Por LO 5/2010, De 22 De Junio*, La Ley, Madrid, 2010.

- VIVES ANTÓN, T. S., y GONZÁLEZ CUSSAC, José L, *Derecho Penal. Parte Especial*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2019.
- ZÁRATE CONDE, Antonio, *Derecho Penal. Parte Especial: 2ª Edición. Obra Adaptada Al Temario De Oposición Para El Acceso a La Carrera Judicial Y Fiscal*. Editorial Centro de Estudios Ramon Areces SA, Madrid, 2018.
- 121/000022 Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2020ko ekainaren 19koa.
- Dictamen del Pleno del Consejo Económico y Social Sobre el Anteproyecto de Ley Orgánica de Protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia. 2019ko otsailaren 20an onartutako.
- EAGren 2.gelako Batzarraren akordio ez jurisdikzionala, 2005eko maiatzaren 12koa.
- EAGren 2.gelako Batzarraren akordio ez jurisdikzionala, 2010eko urriaren 26koa.
- Enmiendas e índice de enmiendas al articulado, 121/000022 Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2020ko azaroaren 5koa.
- Espainiako Auzitegi Gorenaren sententzia, 2003ko otsailaren 4koa (162/2003)
- Espainiar Auzitegi Gorenaren sententzia, 2017ko ekainaren 13koa (424/2017)
- Espainiar Auzitegi Gorenaren sententzia, 2017ko urtarrilaren 11koa (988/2016)
- Estatuko Fiskaltza Orokorraren Instrukzioa 5/2005, preskripzioaren etenaren ingurukoa, 2005ko ekainaren 15koa.
- Estatuko Fiskaltza Orokorraren zirkularra 1/2017, Zigor kodearen 183.Quarter artikularen interpretazioaren ingurukoa, 2017ko ekainaren 6koa.
- Konstituzio Auzitegiaren epaia, 2005eko martxoaren 14koa (63/2005).

Berriak

- Espainiar Gobernua, nota informativa, 2020ko ekainaren 9an onartutako, eskuragarri https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/Paginas/enlaces/090620-enlace_infancia.aspx helbidean.
- GARCIA, Sergio, Los jueces piden que el abuso sexual a menores no prescriba hasta que la víctima tenga 45 años, *El Correo*, 2019ko maiatzaren 31eko albiste, eskuragarri <https://www.elcorreo.com/sociedad/jueces-proponen-delitos-20190531112432-nt.html?ref=https:%2F%2Fwww.elcorreo.com%2Fsociedad%2Fjueces-proponen-delitos-20190531112432-nt.html> helbidean. (Azken kontsulta 2021eko urtarrilaren 13an)
- Poder Judicial España, nota de prensa, 2019ko maiatzaren 30ekoa, eskuragarri <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Sala-de-Prensa/Notas-de-prensa/El-CGPJ-avala-que-el-computo-de-la-prescripcion-de-delitos-sexuales-cometidos-contra-menores-empiece-a-contar-cuando-la-victima-cumpla-30-anos-> helbidean.
- ROMERO Jose Manuel, DOMINGUEZ Iñigo, NUÑEZ Julio eta GRASSO, Daniel, Pederastia en la iglesia española, *El Pais*, 2021ko urtarrilaren 27koa, eskuragarri <https://elpais.com/tag/c/83bc6582c5bc78d42a6dd50510fcc5fc> helbidean. (Azken kontsulta 2021eko urtarrilaren 13an)
- SOSA TROYA, María, Organizaciones de infancia piden que el plazo de prescripción de abusos a menores comience cuando la víctima tenga 40, *El Pais*, 2020ko ekainaren 8koa, eskuragarri <https://elpais.com/sociedad/2020-06-08/organizaciones-de-infancia-piden-que-el-plazo-de-prescripcion-de-abusos-a-menores-comience-cuando-la-victima-tenga-40.html> helbidean. (Azken kontsulta 2021eko urtarrilaren 14an)